


GOIERRITARRA

124 p.k. Ordizia —Goierriko Aldizkaria— dohain banatzen da

GOIERRITARRA HILABETEKARIA.

27. Zenbakia

92ko Urria



Fotoetxe

L
e
h
e
n
g
o

lepotik burua

❖ — ELKARRIZKETA UGARI:

❖ —JOXE MIEL IZTUETA "LAZKAO-TXIKI" BERTSOLARIAREKIN, SAKONEAN. JOSE LUIS ARRIOLA, BEASAINGO ALKATE JAUNAREKIN. LAZKAOKO AGIRREZABALA SEGALARI TXAPELDUNAREKIN SOLASEAN. ZUMALAKARREGI MUSEOKO ZUZENDARIA HISTORIAZ MINTZO. RAMON BALENTZIAGA "BALENTXI" ORDIZIAR ARTISTAREN JOAN-ETORRIAK.

❖ —MURUMENDIKO PARKE NATURALA, NOIZKO? ZALDIBIAKO JAIEN GORA- BEHERAK. GURE V MENDEURRENA...

❖ — ZAHARRAK BERRI, OPOR USAINEKO INKESTA, OHIZKO SAILAK... ETA GEHIAGO!

3. ADINALDIA URRIA



- ⇒ DOHAINEKO begi berrikustapena
- ⇒ Betaurrekoak kristal eta guzti, urruti edo gerturako, **6.950**
- ⇒ Bifokal betaurrekoak, **9.950**

MULTIOPTICAS

J. Larranaga
OPTIKA

Ibargarai, 16 - Tel. 76 15 75 - BERGARA
Juan Carlos Guerra, 1 - Tel. 79 29 95 - ARRASATE
Plaza J.M. Barandiaran - Tel. 88 99 88 - ORDIZIA

MULTIOPTICAS taldeko bakarrak
DEBA eta GOIERRIrako

Zugandik GERTU

LIBURUAK
ALDIZKARIAK
KATALOGOAK
LIBURUXKAK
MERKATARITZAKO INPRIMAKIAK
BULEGO TRESNAK

Zure lan hori garairako GERTU

dei iezaiguzu GERTU gaude!
zuk behar zenuen INPRIMATEGIA

GERTU INPRIMATEGIA

Zubillaga Industrialdea, 9. 20560 OÑATI (Gipuzkoa) Tfnoa. (9) 43 78 33 09 Fax. (9) 43 78 33 09

GOIERRITARRA HILABETEKARIA

Goierrialdeko Aldizkaria

27. zenbakia. 92.eko Urria. Debaldeko alea. Tirada: 2.500 ale. 2.000 harpidedun.

Argitaratzailea: "Goierritarrak Kultur Elkarte". Dorre- etxea, 1. pisua (Correos-gainean). Tfna: 889612. 124 posta kutxa Ordizia.

Aldizkari honek Goierriko Udal askoren dirulaguntza jaso izan du.

Zuzendaria: Jon Mikel Arano.

Publizitate arduraduna eta laguntzailea: Mikel Albisu.

Erredakzio Batzordea: Tere Irastortza, Andoni Sarriegi, Jon Arano, Mikel Albisu, Jon Imanol Iturrioz, Edurne Garmendia, Patxi Zubizarreta, Ane Martin, Loinaz Agirre, Nekane Altuna

eta Rosa Amundarain.

Ale honetako kolaboratzaileak: Dionisio Amundarain, Mikel Aramendi, Iñaki Murua, Xabier Narbarte, "Maizpi", Xabier Gartzia, "Ateari", Mikel Alberdi, Antxon Krehuet, Garbiñe Mendizabal, Aitor Sarriegi, e.a.

Gure eskerronak: Gure "sponsorei": publizitatea ematen diguten guztiei. Idiazabalgo AMPO Kooperatibari eta beren dirulaguntzagatik. Goierriko Herrien Ekintza-ri, Goierriko Udal Ordezkariei, "Zure-Argazki" eta "Fotoetxe"eri, "Egunkaria", Lankide Aurrezkia, "Argia"ri. Era batera edo bestera lagundu nahi liguketenei,

gauzak errazten dizkiguzuenoi eta nola edo hala parte hartu nahi duzuenoi.

Fotokonposaketa, maketazioa eta inprimaketa: GERTU KOOP E. (Zubillaga. Oñati)

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRA aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Zein da aldizkari irakurriena Goierri? Zure publizitatea 2.500 txokotara iristea nahi baduzu, dei egiguzu. Izena emango dizu GOIERRITARRAn iragartzeak, aldizkari bat baino gehiago baita honakoa
Dei 889612 telefonora.

Idea jatorrenek ere bultzada behar izaten dute.

Udal arduradunek lagundu behar diote
GOIERRITARRAri

GOIERRITARRA

Tfnoa: 88 96 12

1992ko publizitate-prezioak:

Behin):

Modulo bat.....4.000 pzta.

Bi modulo8.000 pzta.

Orrialde erdia.....20.000 pzta.

Orrialde osoa.....40.000 pzta

ratzen ditugunez, 5 edo 10 zenbakitan beren publizitatea egin nahi dutenek hurrengo deskontua izango dute:

Modulo bat.....3.500 pzta.

Bi modulo7.000 pzta.

Orrialde erdia.....17.500 pzta.

Orrialde osoa.....35.000 pzta.

Prezio hauek zenbaki baterako baliore dute. Urtean 10 zenbaki argitaratu behar dira.

Abixua:

GOIERRITARRAren egoitza lekuz aldatu da, Postaetxearen azpitik gainera. Hobera edo.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

GOIERRITARRA Etxean jaso nahi dut
NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

Izen-Deiturak:

Helbidea:.....

HerriaTlf.....

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali.

DOHAIN GOIERRIKO ZENBAIT UDALEI ESKER



ALTZAGARATEKO JATETXEA

- Leku aproposa bataio, jaunartze, eztaiak, e.a. ospatzeko.
- Bazkari, afari, meriendak...

88 41 96 Telefonora.

ALTZAGA



IRVROK S. L.
ZERBITZU OFIZIALA



N-1 Madrid-Irun Errepidea
Tfnoak: 88 51 50 - 88 51 54

OLABERRIA



NAGUSIA,7 • Tfnoa: 88 03 19 • 20200 BEASAIN

GURPIL BIZIKLETAK

Bideluze Plaza, z/g. - Telf: 88 89 51
Nafarroa Etorbidea, 3. - Telf: 88 21 03
20200 BEASAIN



Santa María, 8 • Tel. 881211 • ORDIZIA

HIDALGO

BITXIDENDA • ERLOJUDENDA

LEGAZPI, 4
Tfnoa: 88 04 06

ORDIZIA

MUJIK AUTOAK S.M

JABIER Mujika Txapartegi
tailer eta zerbitzu-burua

N-1 Errep. Nagusia., 419.Km
Tfna: 88 74 00 / 88 74 04
Fax: 88 79 52 BEASAIN



KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu askotarikoak
ordua aurretik eskatuz. Tfnoa: 88 57 50 - 88 5854

Nafarroa etorbidea, 25 - 2. BEASAIN



Neurriko bizikleten salmenta
konponketa eta montajea

Urdaneta 56 • 16 11 97 ifnoa • ORDIZIA

Lana

- ✓ —Emakume bat prest edozein lanetarako. Tel.: 885682.
- ✓ —Neska euskaldun bat behar da Ordizian bi haur zaindu eta etxeko-lanetarako. Tel.: 887208.
- ✓ —24 urteko neska prest umetxoak zaintzeko. Lolirengatik galde, 885034.

Salerosketak

- ✓ —"Yamaha" motorra saltzen da, 14.000 km-rekin. Tlf.: 885643.
- ✓ —20.000 pezetatoko garbigailu bat salgai. 889442 edo 882952.
- ✓ —Txirrindu bat salgai, 80.000 pezetatan. Tlf.: 806424.

Etxebizitzak

- ✓ —Etxebizitza salgai Ordiziako Urdaneta kalean: 97 m2. bi bainu-gela, gela guztiak egutera aldera, ia guztiz jantzia, ganbara du. Garajea ere aukeran. 792236-889612, Ramon.
- ✓ —Pisu bat salgai Zumarragan. Tlf.: 723556.
- ✓ —Etxebizitza bat alokatu nahi dugu Beasainen edo Ordizian. Tlfak.: 881137/160572.

Agurrak

Ezpainak apurtuko zaizkit / hortzak eroriko zaizkit / mihia ebakiko didate / baina hala ere nik / euskaraz dentistari.

Lazkaoko Tribuak
"Egunkaria"ren festan



ORDIZIA-BEASAINGO GOARDIAKO FARMAZIAK

Urriak: 10-11: Larnaga; 12: Jauregi; 13: Larnaga; 14: Cuesta; 15: Arriola; 16-17-18: Urbizu; 19: Atorrasagasti; 20: Azpilikueta; 21: Jauregi; 22: Larnaga; 23: Cuesta; 24- 25-26: Arriola; 27: Urbizu; 28: Atorrasagasti; 29: Azpilikueta; 30: Jauregi; 31: Azpilikueta; Azaroak: 1: Azpilikueta; 2: Larnaga; 3: Cuesta; 4: Arriola; 5: Urbizu; 6-7- 8: Atorrasagasti; 9: Azpilikueta; 10: Jauregi.

Intereseko Telefonoak

Orokorrak

Zumarragako Eritetxea	721614
Donostiako Erresidentzia	453800
Gurutze Gorria	272222
DYA	464622
SOS Deiak	088
Eguraldi informazioa	094
Errepideen egoera	288888
Ertzantza (Beasain)	887350
Suhiltzaileak (Ordizia)	881362
Renfe (Beasain)	880853
Sarasola Garraioak	880710
Pesa Garraioak	880668
Estellesa	452949
Itxaropenaren tfna	458005
HIES-SIDARI buruzko tfna	282666
Toxikologia inform	912620420
Alkoholiko Anonimoak	276618
Goierri Lanbide Eskola	880062
Maizpide Euskaltegia	889231
Goiztiri AEK	889174 / 889340
Segura Irratia	801041 / 801341
Arlote Irratia	888093

Arama

Udaletxea	888953
Telefono publikoa	880739

Ataun

Anbulategia (S. Martin)	881025
Udaletxea	881011
Anbulategia (S. Gregorio)	881251

Beasain

Anbulategia	880759
Alkartasuna Lizeoa	887191
Hotel Urteaga	880850
Larrialdiak	880967
INB	880753
Loinazpe Ikastetxea	882644
Udaletxea	885900
Udal Euskaltegia	889094
Udaltzaingoa	881355
Zaharren Egoitza	884804
Taxiak	880367

Ezkio-Itxaso

Udaletxea	721303
Telefono publikoa (Ezkio)	720267
Telefono publikoa (Itxaso)	880315
Gasolindegia	721717

Gabiria

Udaletxea	880734
Telefono publikoa	881384

Gaintza

Udaletxea	889564
Tfno. publikoa	880274

Idiazabal

Anbulategia	801173
Udaletxea	801064
Eskola publikoak	801726

Ikaztegieta

Udaletxea	653329
-----------	--------

Itsasondo

Udaletxea	881170
Eskolak	887704
Medikueta	881359

Lazkao

Udaletxea	886408
Anbulategia	882632
S. Prudentzio Ikastetxea	882630
S. Benito Ikastola	880800

Legorreta

Udaletxea	806225
Eskolak	806014
Izarra ostatua	806044
Taxia	806170

Mutiloa

Tfno. publikoa	801166
----------------	--------

Olaberria

Udaletxea	889193
Eskolak	881232
Castillo Hotela	882011
Tfno. publikoa	881111

Ordizia

Udaletxea	885850
Anbulategia	880967
Eskolak	882780
Kontsumitzaileen Bulegoa	881642
Kultur Etxea	881280
Gaztetxea	888092
Oianguren BIN	880862
Suhiltzaileak	881362
Udaltzaingoa	884005
Taxiak	881486
Zaharren Egoitza	888377



Ormaiztegi

Udaletxea	882660
Anbulategia	888432

Segura

Udaletxea	801006
Anbulategia	801919
Eskolak	801776
Igerilekuak	801775
Aingeru Zaind. Aterpetxea	801010
Hospital	801008
Segura Irratia	801041
Taxi	801170

Zaldibia

Udaletxea	880357
Anbulategia	880027
Eskolak	884521
Etxabe Autobusak	884105

Zegama

Udaletxea	801115
Anbulategia	801351
Eskolak	800042

Zerain

Udaletxea	801724
Medikua	801136
Telefono Publikoa	801183

Goierriko kirol-antolaketa

Ukaezina da mundua aldatuz dihoala eta alor guztietako aldakuntzak eskatzen dituela mundu honek. Baretuz joan dira garai bateko ordiziarren eta beasaindarren arteko liskarrak, denon onerako nire ustez, gaur egun Goierri hiri bat osatzen duela esan daitekeenez, eta badirudi errealitate honetara bildu beharra legokeela zenbait alorretan.

Ez du zentzu handirik, bata-bestearen mugak non dagozen antzik ere ematen ez denean, Ordizia, Beasain eta Lazkao, bakoitzak bere hirigintz planak apartekoak izatea, batai besteak kontutan hartu gabe. Ildo honi jarraituz, azter dezagun kirol aldetik nolatan dagoen gure herrietako mundutxo, eta laister igarriko diogu lan banaketa guztiontzat onuragarria izango litzatekeela.

Ikusten dugu nolatan gaur egun futboleko Beasain aurrera xamar dagoen, Ordizia atletismo eta rugby bezala. Honek ez du kentzen Amaia Andres bat, beasaindarra esaten dutenez, Ordiziako "figura" izatea eta berdín litzateke alderantziz.

Hauek hala, ez ote da itxurazkoagoa hemengo herrietako kirolzaleak izen berdinaren azpian aritzea, herriz herri lanak banatuz? (GOIERRITARRA aldizkaria dugu adierazgarri honen eredu polita). Gero, lanak banatzea izango litzateke kontua: adibide batean, Beasain futboleko, Ordizia rugby eta atletismoa, Lazkao saki-baloiaz, Ormaiztegi esku-baloiaz, Ataun txirrindularitzaz, Zaldibia pilotaritzaz, edota beste lan banaketa egokiago bat eginez, arduratuz.

Honek ez luke esan nahiko, hauek hala izanik, adibidez Ordizia eta Lazkao ez futbol-talderik izatea, baizik eta ez

elkar interesen aurka aritzea. Honela lortuko litzateke Goierri kirol mota ezberdinetan indartsu agertzea, hemen go gaztediaren kirol zaletasuna bultzatuz.

Ea ba kirol munduan mogitzen diren jaun-andreak ideia hau baliagarritzat hartu eta aurrerapausuak ematen hasten diren!

Ateari (Zaldibia)

Osakidetza eta Osakidetzakoei

Zergatik ez daki euskaraz nire mekikuak? Zergatik ez, nire medikuak, eta ezta ere nire andrearenak, nire haurraren pediatriak, nire aitaren biriketakoak, nire aldamenekoarenak, ..., eta beste nahi hainak? Ez dakite ere euskeraz beste hainbeste erizainek, eta klase guztietako laguntzaile eta zaintzailek, derrigorrez gure inguruan mugitu beharra izaten dutenak Osakidetzako zerbitzuan.

Zori, on edo txarrez, azken boladan ohi baino maizago hurbildu behar izan dut zuen Osakidetzaren zerbitzuetara, eta apenas ezer euskaldunik aurkitu ahal izan dudana eskotan zuen izen ponpoxoaz gainera. Ez al daukagu euskaldunok eskubidea gure hizkuntzan tratatuak izateko, eta areago gure osasuna bezalako gai minberatsu batean?

Besterik berriz Osakidetzatik kobratzen duzuen guztiok, - eta gogoratu! - pagatuak zaretenak, baita ere, euskaldunon poltsikootatik, ez al zenukete eduki behar konpromezu morala gutxienez funtzionari publiko eta gure zerbitzari bezala, gure hizkuntzan zerbitzatzeko euskaldunoi? Dakienak, eginez, ja egiten duen bezala segurasko, baina eta

ez dakienak ere, lehenbailehen ikasiz.

Azkenik ez al luke bada izan behar arduradun Osakidetzak bera, euskalduntze hori eragiteko, eta are hasiera batetik eskatzeko ere bere enplegatuen artean? Zuen erantzun zuhurraren zain.

Bittor Hidalgo (Donostia)

A ze flaxa!



Hau ere ba al dugu?
"Ataun" erregaliz hutsa!

- Soluziorik hoberena

- Plastiko injekzio eta erreziklaia

- Enbase eta enbalaiak




- Muntaia eta mekanizatuak

- Loragintza

- Garbiketa industrialia

- Publizitate zuzena

GUREAK TAILER BABESTUAK, S. A.



GUREAK

Jauregi Auzoa z/g.

HERNANI (Gipuzkoa)

Tfnok.: 55 72 00 - 55 72 04 - 55 72 08

Faxa: 55 72 23

1191 Posta Kutxatila

20080 **DONOSTIA**

Besteek esana

Euskaldunok hemen iraungo

Mundura sortzen garen une beretik "galtzailearen arantza" sartua daramagunoi eta "Historiaren tabernan" beti "ardo mindua edan" beharra izan dugunoi, duela gutxi euskalgintzako langile handi batek irratiko elkarrizketa batean esan berri duen legez, hainbestearinoko mina ematen digute egunero horrelako adierazpen eta egintzek, ezen hitzik eta letrarik ere ezin dugula aurkitu min hori benetan mintzoz eta idatziz adierazteko. (...) Nekez aurki daiteke munduan nazioarteko hizkuntza eta kulturen arloan besteena onartzeko euskaldunok bezain zabal jokatu duen herririk eta halere, geure etxean bertan iragarri utzi nahi izan gaituzte beste behin ere. Honen aurrean, gure artean oso ezaguna eta trebea den bertsolari batek duela gutxi puntuari erantzunez botatakoa ondo letorkeela iruditzen zait: Euskeraren aurretik/ ote da inglesa?/ txorakeri horrekin/ hortxe dabil Buesa/ horrelakoa bada/ bere interesa/ Euskaditik aldegin/ ta ikasi beza.

Andoni Sarriegi,
"Egunkaria", 92-VIII-15.

Turismoa Zeraina

Zerain betidanik baserritik bizi izan den herria da, baina orain hori ez da nahikoa, eta sektore hau bultzatuz beste batzuetara joan behar dugu. Noski, industrian ez gara sartuko, orduan zerbitzuen sektorea geratzen zaigu eta horren barruan turismoa. (...) Gaur egun E.H.-an espansioegune bakarra kostaldean dago eta hori ez da nahikoa. Erakundeek gune horiek barnekaldera zabaltu nahi dituzte, eta hori da gure asmoa: Zerainen dagoena aprobetxatuz eskeintza konkretu bat luzatu, jendeak hori nahi bait du. Lehenik eta behin, plan hau herriari interesatzen zaiola garbi eduki behar dugu eta gero pausu seguruak eman".

Antton Alustiza
(zinegotzia), "Egin",
92-VIII-29.

Urteko berri nabarmena

"Atentatu terrorista bat gertatzen den bakoitzean S. Martin Plazan biltzen den beasaindar talde baten presentzia, eskubiderik funtsezkoena (bizitzeko eskubidea) haustearen aurka isiltasunean protesta eginaz, azken urtean gizarte mailan gertaturiko ekintzetan gau-

za berri nabarmenena da. Gure aldetik, positibotzat jotzen dugu biolentziaren aurkako gizartearen kontzientziakuntza, alderdien interesak alde batera utziz, eta interesgarri deritzogu pakearen kultura zabaltzeko eguneroko elkarbizitzatik biolentzia erradikatzea bilatzen duten mugimendu guztien presentzia areagotzea-ri".

Udako "Beasaingo Aldizkaria", (EA-EUE).

Eskolatik Goierriko bertsolariak

"10 urte dira eskola martxan jarri zenetik, baina oso garrantzitsuak izan ziren ere 79tik 82ra bitarteko hiru ur-

teak. Pedro Irastorza eta Joxemari Barandiaran hasi ziren lanean, eta eurek egin zuten garai horretan inork egiten ez zuen bertsolari eskolaren aldeko apustua. Oso garrantzitsua izan zen ere Ordiziako Argi-Berri elkartearen babesak. (...) Xanti Garmendia eta Mikel Mendizabal hasi ziren eskolako irakasle bezala, eta urtero batz best 60 ikasletik gora izan dira. Herriko Udalak ofizialtasuna eman zion eskolari. (...) Apustu hori egin zuten eta ondo atera da. Emaitzak hor daude: Munduate, NARBART, Aranburi, Elortza... hasi berrien artean nahiko ezagunak diren bertsolariak eta Lizardi Saria irabazi duen Aitor Sarriegi.

Iñaki Murua, "Argia",
92-IX-20.



Xabier Zeberio, Aitor Sarriegi, Joxe Munduate eta Mañukorta Olaberriar

GRUPO VITALICIO
SEGUROS BANCO VITALICIO NACIONAL HISPANICA
VITALICIO PENSIONES
ASEGURUAK

Unanue Enparantza, 3 • Tfnoa: 16 04 86

GOITGI OKINDEGI
Etkezaretza, z/g.
Tel. 88 12 11
ORDIZIA

Ba al dakizu...?

GIZARTEA

—Urte honetako lehen sei hilabetealdian 74 paper tona birreskuratu dira Bailadan. Bilketa Lazkao, Beasain, Zumarraga, Urretxu eta Ordizian hasi zen eta Ataun, Ormaiztegi, Idiazabal, Olaberria, Legorreta, Itsasondo, Zaldibia eta Gabiriarraino iristen dira orain Sasieta Mankomunitatearen enkarguz "Remar" eta "Vida Abundante" erakundeak.

—CAFek 14.000 milioiko kontratua bereganatu du Mexicoko metropolitarako. 135 tren-kotxe egingo ditu. Fabrika Handiak 70.000 milioi pezetako eskari kartera dauka dagoeneko.

—Idiazabalgo gazta Europa mailako gazten artean egotea lortu du eta ikerketa proiektu batean parte izango du.

—Oraindik ere bada bakarren bat apaizten denik. Hori erabaki du aidanez Ormaiztegi Juan Kruz Mendizabal Irizar gazteak eta apaiz berri egin zen bere herrian uztailen. Bertan izan ziren bere familiarteko beste bi apaiz (irizartarrak) Ameriketatik ospakizunetarako apropos etorrita.

—Olaberriako Hipermerkatua laister ireki behar dela eta 1.300 eta gehiago lagunek egin dute bertarako lan-eskea.

—Beste herri batzuetan bezala, Euskadiko Ezkerrak haustura jasan du hemen ere. "Udal

taldeak eta militanteen zati adierazgarri batek Euskal Ezkerra aukeratu du, beste batzuk, berriz, EEn jarraitzea. Zatiketa hau elkarrekin hartutako akordioa izan dela aipatzekoa da", diote EUEkoek "Beasaingo Aldizkarian".


—Madrilgo "Tiempo" aldizkariak uda-inguruan zekarrenez, zenbait euskal enpresek ETA edo HBren loturaren bat euki dezaketenez susmoa dela eta, EAJk behatzen omen ditu. Horien artean, "Egunkaria"z gain, Gerriko S.A. eta Maizpide. Lazkaoaldean txisteak egiten dira horren gainean.

—"Etxegarate ez zabaltzea hankasartze historikoa da", adierazi zion "Egunkaria"ri Jose Manuel Goikoetxea Altsasuko Alkateak abuztuan. Eusko Jaurlaritzak Maltzaga eta Urbina bitartean autopista bat egiteko plazaratu berri duen proiektuak kezka bizia sortu du N-1a zeharkatzen dituen Nafarroako herrietan ezetik Goierrin eta Tolosaldean. Askoren ustez, honek N-1aren baztertzeari ekarriko luke eta herri askorentzako kaltea.

—Ordizian kokatutako Goierriko suhiltzaileen parkea datorren udaberriko martxan izango da. Lehen faseko lanak ia bukatuak daude.

—Herri bereko Gazte Informazio Bulegoak 900 bat kontsulta izan ditu urtebetean. Soldaduska da gazte gehien kezkarazten dituen arazoa. Gazte Txartela eta turismoari buruz ere galdetzen dute.

—Beasaingo Arrano Kultur Elkarteak txoko



eta taberna berriaren atea ireki zituen Kale Nagusian uztailen.

—Arriarango urtegiaren egin beharreko tratamendu estazioaren obrak adjudikaturik. 750 milioetako kostua izango du. Arriarango urtegiaren obrak aurrera darraite eta aforoen erregulaztaileak betekizun garrantzitsua izango du.

—Lazkao aurrekontuen prestatze lanean EAJk izandako jarrera salatu zuen HBk uztailen.

—Alberto Aldasoro eta Axier Imazek (HB) zinegotzi karguak hartu dituzte Idiazabalen, aurretik zeuden Martin Lizarazu eta Ester Munduateren ordez. Dimisio hauek arazo pertsonalak medio gauzatu dira.

—Baserriaren etorkizunak Abaltzisketa zaitu du. Jesus Mari Gonzalezek alkatezta utzi ondoren, Asentxio Otamendik kargua hartu behar izan du.

—Zeraingo Udalaren eskaintzari erantzunez, 600dik gora haur joan ziren hara udan egun-pasa. Herrian baserri berririk egin den bildumaren azalpena eman da, berriz, berriki, Etnologia Erakusketan.

—Ia miloe bat ordaindu zuten Partzone-riako ehizarako zozketan Seguran, Apotako



PEUGEOT - TALBOT
AGENTZIA OFIZIALA

205 RALLYE



SANTA ANA Garagea, S.A.
PRE-ITV DEBALDEKO ZERBITZUA

Urdaneta, 74-76
Tfnoa: 88 16 89 - 88 08 67

ORDIZIA

10 postuarengatik.

—GOIMENek bultzatu du Goierriko zenbait herrietan nekazal- buzoien ezartzea. Baserriarrei zerbitzu ederra egiten diete buzoioak. Ongi etorria eman zaie Legorretan ere.

—Lipu, pinu-zomorro edota prozesionarien kontrako tratamendu bat gauzatu da Murrumendi inguru-aldeetan abuztuan. Nahiz eta iazkoan ere egin zen horrelakorik, mendi horren zatiren bat geratu zen ukitu gabe, eta hortik oraingoa.

—Etxeetarako laguntza-eskaerak izugarri ugari direla eta Zegamako Udalak eskaera horiek aztertu eta horien gainean erabakitzea ontzat hartu du.

—Ordiziako Kultur Batzordeak baikor baloratu ditu orain gutxi ospatutako Euskal Jaiak. Euskal Jai hauetako Gazta Txapelketan (iazko ustezko iruzurra zela eta) aurkeztutako gazta norberak eginga zela zin egin behar zen. Sari-eramailea arabar bat izan zen eta gazta irabazlearen eroslea Lierniko Patxi Jattetxea. Argi-Berrik bikainkiro ospatu zuen Goierriko Bertsolari Eskolaren urteurrena, zenbait ospakizunekin, aipagarri "Santakruz" Pastoral. Mila pilotari inguru gazte bildu zen Pilotaren Eguna ospatzeko, bestalde.

—Zaldibiako herritarren iritzia jasoko da, bertako Arau Subsidiarioak osatzeko.

KULTURA

—Joxe Azurmendi zegamar filosofoaren saiakera-liburu berria, "Euskaldunak eta es-

painolak", argitaratuko da laister. 500 orritik gora izango ditu eta hizkuntzaren inguruko ideologia eta mitologiaren historiari erreparatuko dio. Hizkuntza ederki menperatzen duenaren trazak erakusten omen ditu berriro zegamarrak. Bere azken liburuaren, "Gizabe-rearen bakeak eta gerrak" ondoren datorrenak emango du hizpiderik.

—Josune Albisu-lazkaotarrak haur kantez osaturiko disko berria plazaratu du IZren eskutik. "Tximalatz" izena du Josunek konposatu eta kantatutako sorta berriak. Oso alaia izan behar du.

—Donostiako Agirre Francok "Trikitixa" liburu atera berri du. Bertan dioenez, trikitixak 125 urte eskas ditu Euskadin eta bere zabal-kundea Gipuzkoa barnekaldean eman zen. Alpe- inguruetako piamontetar langileak etorri ziren 1860.ean Norteko trenbidea egitera, Beasaindik Olaztirako tramora eta haiek ekarri ziguten "filarmonikea". Nork esan behar zuen hain "gurea" zena...?

—Hiromi neska japoniarra (Lazkaoko Maizpide Euskaltegiako ikasle historikoa), notizi-gai dugu. Ikusteko 6.000 hitzeko hitzegi bat argitaratu berri bait digu hango argitaletxe baten eskutik. Euskara/Japoniera eta alderantziz. Horrelako ikasleak (irakasleak) behar ditu euskarak zabal dadin mundu guztira!

—Olaberrian bizi den Usua Gabarain donostiarrak pintoreak dagoeneko eginak ditu zenbait erakusketa bakarka nahiz taldean. Euskal Akuairelisten Elkartekoa da eta Lazkaoko Udaletxean euki zuen erakusketa zintzilik Uztailen. Goierriko zenbait paisai ere ba-

Ba al dakizu...?



Josune Albisu

ditu.

—"Arantzazuko kalendariora" edo "takoa" egiteko arduraduna zegamar bat dugu: Jose Luis Zurutuza aita. Bera da Arantzazuko komentuko itzultzaile taldearen koordinatzailea. Orain, failerik zaharrena Jose Antonio Amundarain da, 89 urte. Urbiako artzairen artzai izandako Aita Lasa berriz ezindua dago.

—Karlos Argiñano beasaindar sukaldaria ETB-n lehenago, "Telenorte"-n gero eta orain berriki, berriz, TVE-n ari da sukaldaritza programa batekin jo eta fuego. Espainia osorako emankizunak ditu eta famatua egiten ari zaigu isurtzen dituen xelebrekeriak direla eta.

—Epe luzera oraindik, baina etorkizuneko Beasaingo Arte Plastikoen Zentrua hiltegi zaharrean (Mataderoan) kokatuko dela uste da.

—Legorretako Kultur Etxe berria lehenagoko Eskola "Nazional"-etan kokatuko da. Liburutegi eta guzti.

Z•M

Gipuzkoako Foru Aldundia
MUSEO•ZUMALAKARREGI•MUSEOA
Ormaiztegi • Gipuzkoa
Diputación Foral de Gipuzkoa

Iriarte Erdikoa Etxea
20016 Ormaiztegi- Gipuzkoa.
Tfnoa.: 943-88 99 00
Faxa: 943- 88 01 38


Bisita ordutegia:
Asteartetan: 15etatik 19etara
asteazkena, osteguna eta ostiralean:
10etatik 13etara eta 15etatik 19etara.
larunbatetan:
10,30etatik 14,30etara, eta 15,30etatik
18,30etara.



ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa

• LEIHOAK, ATEAK ETA ABAR
• ESKAILERAK NEURRITARA



Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxa: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)

Nora joan zara oporretan?



Aitor Garmendia. 22urte, beasaindarra, ikaslea.

Kubara. Kubara joateko turista bezala edo "solidario" bezala joan zaitezke. Solidario-turista bezala ere bai. Horrela joan gara, kubarrekin lan egitera baina pribilegio batzu izan ditugu hangoak ez izategatik. Turismoa egiteko leku zoragarriak ditu Kubak, ondartza tropikal horiek ikustekoak dira eta bai eta parkeak, berdeguneak, e.a. Beste aspektu guztiak aparte, ekonomikoki blokeoa gainditzeko ere balio du hara joateak. Garrantzitsuena bezala jotzen dudana da eurak euren buruaz duten iritzia. Nere analisia ez da erabat erreala, La Habana oso ondo ezagutu dudalako, baina herri txikitik gutxiago egon naizelako.

Alde batetik kristoren kontzientzia ikusten dut jendearen partetik, antolaturik daude, bai "kontingenteetan" eta bai CDR-an, ume "pionero"etan, e.a. Horrezaz gain, ahaztezina da kubatarren giza-izakera bikaina eta elkarkoia. Gauza txarrak ere ez ditugu izkutatuko. La Habana bertako leku txarrena dugu, merkatu beltzez betarik dagoelako. Turismoa potentziatzen ari dira dibisak izatearren eta horrek suposa lezake merkatu beltzen ugaritzea. Kubatarrek beraiek beldur diote horri, baina daukaten egoera dutela, amore eman beharra ... Bukatzeko, esan oso larri dakusadala Kubako egoera eta orain bai behar dutela elkartasuna. Horregatik egiten

dut hemendik-dei bat Kubaren aldeko ekintza guztietan parte har dezazuen eta ahal baduzue, badakizue, joan eta ikusi!



Ataungo bost lagun Jugoslavia-ohian

Ezkerretik eskuinera: Lurdes Seguro, Amaia Auzmendi, Maixa Martin, Maite Seguro eta frantziar boluntario bat.

Gerra eta militarismoaren kontrako sentimenduek bultzatu zien Kroaziarako bidea hartzea. Jon Garcia (donostiarra berez), bere emazte Lurdes Seguro, Maite Seguro, Amaia Auzmendi eta Maixa Martin ataundarrak ziren espedizioan, beste donostiar lagun batekin batera. Abuztuaren 2tik 23ra egin zuten han bosniarrentzako eraikitako errefuxiatu kanpo batetan. Beren helburua, gerra larruazalean ezagutu eta oraindik oroimenean bizirik duten haur eta gaztetxoei irribarre sortzea, "Egunkaria"ko Idurre Eskisabel beasaindarrari adierazi ziotenez.

Euskal Herriko Kontzientzi Eragozi Mugimenduaren baitatik sortu zen gazte hauek hara joateko iniziativa. Jon Garcia KEM-eko kide da eta zioenez, "Garbi utzi nahi dut inor ez garelako joan bizipen berrien bila, baikik eta egoera honetan premiazkoa iruditzen zaigun elkartasuna adieraztera". Beraien lehenengo ezustea Venezian, Zagrebera eraman behar zituen trenean satzean hartu zuten. Izan ere, inortxo ere ez zegoen trenean, eurak bakarrik. "Oso sentsazio larria sortu zigun horrek, nik usate orduantxe hasi ginela lehenengo aldiz pentsatzen nora gindoazen eta nolako arazoak izan genitzakeen".

Umeei aritu dira, joko eta ekintza desberdinen bitartez gerra ez dela guztia sentitu arazi nahian umeei, baina bizi izan dutena bizita, hori burutik kentzea oso zaila da. Jon Garcia eta Lurdes Seguro Senperen bizi dira eta, esaten digutenez, prentsaurrekotik prentsaurrekora dabilta, ideia berri pilo bat sortu dira gerran dauden atzeritarrei laguntzeko, Goierriko hainbat Udalek gauza mordo bat bildu dituzte harako...



Axier Zubeldia, 21 urte, ordiziarra.

Alpetan izan ginen bi lagun, Val Claretan, abuztun 8tik 15era. Val Clarete glaziar bat da, horregatik dago elurre urte guztian. Uda-partean tonto-

rrren eta pixkat beherago ere egoten da. Goizetan eskiatu egiten genuen. Pistan ur eta izotz asko zegoen. Eskiatzen ondo jakinda praka motzetan ibiltzeko prolemairik ez zegoen han. Jende asko ikusi genuen hala jantzi-ta, bai eta bainujantzian ere. Guk ez-takigu hainbesterako. Atsaldetan ten-nisen jokatzten genuen eta inguruko mendiak eta herriak ikustera joaten ginan, Tignes mendia-eta. Beajearen barruan "for-fait"a sartzen zen, golfa, tenisa, igeriketa, surfa... mendiko bi-zikletan ere ibiltzen zen jendea. Gu ez ginen ibili. Gauean behin atera gi-nen, baina piskat garestia zen.

Horrezaz gain, festarik festa ibili gara: Ordizian, Ataunen, Ibarra, Et-xarrin...

Mari Jose Amundarain, 30 urte, irakaslea, itsasondoarra

Egun bat Kenian: Nakuru herritik iparraldera abiatuz, bi aukera aurkitu ditugu: busez joan edota "matatu" izeneko furgoneta antzeko batean. Ez bata, ez besteak ez du irteera or-durik; halere, busak, handiagoa iza-tean, denbora gehiago behar du be-tetzeko eta gehiagotan gelditzen da; hortik "matatu"a hartu beharra 100 km.ko bidea egiteko. Marigat herrian utzi gaituzte hiru bat ordu pasa eta

gero eta Ekuadorea pasatuz bidean, joan nahi dugun lekutik 15 bat kilo-metro tara.

Ordurarteko bidaia ona izan dela eta, uste baino lehenago iritsiko gi-



nelakoan geunden. 2. zatia egiteko furgoneta ireki batean, bakoitzak ze-raman zakua edo motxila eserleku zelarik abiatu gara. Km. bat egin or-duko, motorra piskanaka geldituz jo-an da; denak begira jarri eta inork elektrizitatez badakien galdetu du norbaitek, kable-prolema dagoela eta. Norbait inguratu da eta baita noizbait konpondu ere. Aurreraxea-go gauza bera gertatu da: oraingoan, adierazi digutenez, destorniladore bat behar da arazoa konpontzeko.

Beste ibilgailurik ez denez pasatzen eta destorniladorea edukiko dutena-ren itxaropena ere ez denez handia, herrian hasi behar bila. Herriko jen-dea inguratu da, konpondu dute zer-bait eta Baringo lakura iritsi gara.

Hipopotamoak eta kokodrilok bi-zi dira bertan eta elkarri laguntzen diotela esan digute. Batzutan txalu-paren bat dagoenean uretan, hipopo-tamoak azpitik txalupari kolpea eman eta buelta eman arazi, horrela kokodriloei janaria eskura jarri. Jen-de gutxi bizi den inguru lehor hone-tan hipopotamorik ez omen zen bizi lehen, beste laku batetatik ekarri omen zituzten han emakumeak hilt-zen zituztelako, ez emakume izatea-gatik, baizik eta berauek zirelako ur bila joaten zirenak.


Egun osoa uretan pasa eta gero, iluntzen hasi duenean atera dira eta belarra jaten hasi kanpinera ingura-tuz. Goizaldera, belarra jaterakoan ateratzen zuten zaratak esnatu gaitu, oso hurbil zeuden. Orain dela bi urte bi hipopotamoren arteko borroka egon omen zen eta bat kanpin-denda baten gainera erori. Horregatik dago txartel bat esanez horrelakorik gerta-tuko balitz kotxeetan sartzeko, ahal duena noski!

ARRIKUTZ TAILERRAK, C.B.

Autoen konponketa Orokorrak

PROBA-MAHAIA:

- Proba-Mahaiko Zerbitzu guztiak
- Frenoak
- Suspentsioa
- Norabide Zuzenketa
- PRE-ITV errebisioa



Nafarroa Etorbidea, 53
Tfnoa: 88 52 00 • BEASAIN

MURUMENDIKO NATUR-BABESGUNEA DELA ETA

Damaren Parkea, noizko?



OFIZIALKI aldarrikatutako Naturgune Babestuak hiru dira une honetan Euskal Komunitate Autonomoan: Urdaibaiko Biosfera Erreserbategia eta Urkiolako parkea (sonatua, Atxarteko harrobiarekiko arazoa dela eta) Bizkaian, eta Valderejokoa Araban, Burgosekiko mugan. Gorbea aldekoaren tramiteak ere ari dira aurreratzeko, honelakoetan ohizkoak diren tirabirekin (baso-jabeen Elkartea ez dago ados; EHNEk, baserritarrentzat alternatiba taxuzkoak eskatzen ditu; eta badira kaltetuta sentitzen diren ostalari eta antzekoak ere). Gipuzkoan, oraingoz, ez dago Natur Parke bakarria ere, maila apalagoko babesguren batzuk (Pagoeta, etab.) eratu diren arren; beharra, ordea, nabarmena da, geratzen zaizkigun bazterrik itxurazkoenak gordetzeko jendez gainezka dagoen lurralde honetan. Besteren artean (Aizkorri, Aralar, Txingudi, Izarraitz, Aiako Haritzak) badabil, haatik, asmotan bederen, bat itsasondoroi zuzenean dagokiguna: Murumendi aldeko Natur Parkea.

Murumendi aldea, Gipuzkoaren erdi-erdian irla modura geratzen den basogunea da, animalia moeta asko eta landaretza autoktonoaren berezko babeslekua, eta paisaia ikusgarriko mendialdea. Natur Parke egiteko asmoa, beraz, ez da funtsik gabeko ateraldia. Murumendiko Natur Parkeak hartuko litzuzkeen sailak zuzen zehaztea nahiko zaila gertatzen da gaurkoz, gauzak hain prexko daudenez. Nolanahi ere, ezinbestez, Itsasondoko sailak hartu beharko litzuzke, Murumendiko amilaga eta hango ekosistema denez babestu nahi den natur ondasun nagusia. Egitasmoa argitaratu zenean, 3.650 bat hektareatako hedadura aurreratsen zitzaion, baina orduangoen aldean nahiko desberdinak dira azken planak.

Hauetan zehatzena, aurtengo udaberrian Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Ingurugiro departamenduak argitara emandako Lurralde Antolaketa-ko Zuzenbideen zirraborroa da, arauzkotasunik gabekoa eta, noski, mudagarria. Horren arabera, Natur

Parkeak triangelu modukoa, biribilduxea, egingo luke, Goro-sagasti aldean erdigune teorikoa lukeena. Haren muturrrik hegoaldekoena Murumendi ingurualdea bera izango litzateke, Ebiziatako gainaldea zuzenkiago. Handik sartaldera, Parkearen muga Murumendi-atzeko errekararekin joango litzateke, hura, Matxinbentatik gertu, Urrestil errekararekin elkartzen deneraino; haren eskuinaldeari eutsiko lioke Eula erreka dator-kion punturaino, Atxaranbeltz aldea osoro parke barnean geratzen dela. Handik aurrera, ordea, ibaiertza utzi eta maldan gora abiatuko litzateke parke-muga, Beizamako herria eskuinetara kanpo utzi eta Parkearen ipar-muturrera, Bakartxo gainera, ateratzeko. Bidaniko isuralde itxiaren hegoparte guztia hartzen duela, Albizturtik Azpeitirako C-6324 kamino ertzerraino ailegatuko litzateke, Santutxu eta Bidania artean. Santutxu kanpoan geratzen dela, Leizaundietako gainetik barrena, Zazpiburrieta errekararen arrastoa hartuko luke parkemugak, Zubin errekaraino etortzeko. Hegoaldeko muga, Itsasondoko sailetan, Lizardi errekarak egingo luke, Ebiziataren zubin errekaraino. Zazpi herritako sailak lirateke guztira: Itsasondo, Beasain, Beizama, Bidegoian, Albiztur, Legorreta eta Errezil.

Aurre-asmo horren arabera osatuko babiliz Parkea, basa-basatia izango litzateke, bistan da. Bi kamino (Santutxutik Nuarbera doana zati batean; eta haren adarra, Santamainara doana, osorik) bakarrik barneratuko lirateke Parkean, eta beste bi (Salbatoretik eta Albizturtik Azpeitira doazanak) ukituko litzuzke ertzean; gainerakoak, baserri eta basoetarako kaminoak lirateke, hori bai, porlanezkoak eta nahiko egokituak batzutan. Perimetroan barne, baserri bakanak baino ez dira geratzen,



gehienbat Beizama eta Bidanikoak; osoro barne geratuko litzatekeen Santamaina da, gainerakoan, eraikin gehieneko gunea. Lizardi geratuko litzateke barnean gurean.

Barnean geratuko liratekeen basoak ordea, gehientsuenetan irabazpide asmotan landatuak dira, kanpotiko koniferoak askotan, eta jabego pribatukoak neurri handian. Parkea egiteko konponbideratu beharko den gorabehera sozio-ekonomiko garrantzitsuenetakoa izateaz gain, osatuta gero ere, haren ekologi arazo nagusienetakoa izango litzateke eta egun gutxiengoan geratzen den baso jatorrizkoa berregitea urte askotako lan iraunkorrez bakarrik lortuko da. Dena den, Parkearen lehen betekizuna, okerragorako bidean ez aurreratzeko litzateke.

Asmoa, ametsa, besterik ez da ordea oraindik hau. Noiz arte?

Mikel Aramendi
("Kantillape"ren baimenez)

(Gure) Bostgarren Mendeurrena oroitzuz

"El que fue a Sevilla perdio su silla" esan ohi zuen nire haurtzaroko umeteariak, norbait bere eserlekutik altxatu eta handik urrutiratuz gero, beste norbait, egokiera probetxatuz, aurrenekoaren aulkian eseritzen zenean. Ez genuen hitz-joku haren esanahia asko ulertuko, baina ongi baino hobeto jabetzen ginen nork bere aulkia gogotik zaindu beharra zeukala, gogoia Sevillara edo beste inora eramanez gero gurean eseri gabe eta ahoa bete hortzekin geldituko baikinakeen. Inolaz ere ezin nezakeen pentsa, ordea, zirtu hura premonitorio gerta zitekeenik. Egia esan, gaur egun ere hemengo historiaren aulkian eseri nahi duenak Sevillako Expo-ra joan eta ez du eseritzeko moduko gurerik ezer aurkituko. Euskaldunon aulkia 1492.eko urtean ez baizik 1512.ean aurkitzen baita, eta gure eserlekurik sendoena ez baitago Ameriketara, Nafarroan baino.

Espainiako batasun artifizia eta Amerikako Aurkikundearen auzi-mauziak lotsagabeki ospatzen dituen askotxok ez digu XV. mendeko Nafarroa nolakoa zen adierazi nahi izan. Garai hartako Nafarroa bere buruaren jabe (independiente, bestela esanda) zela jakitea komeni zaigu euskaldunoi. Ez zegoen ez Espainia eta ezta Frantziako estadien uztarpean, estadien ere ez baitzegoen orduan, eta, berjabetasun hartan, erreinu eta nazio bat osatzen zituelarik, errege-erregin propioak zituen eta baita bere auzitegi, gorte, lege, foru, armada, diplomazia, administrazio, moneta, hizkuntza eta berezko usuario eta ohiturak ere. Beraz, ene us-tez, euskaldunok V. mendeurrena ospatzekotan, independentzia haren izpiritu eta mezua ospatuz egin beharko genuke, eta ez besterik. Libre geundeenok indarrez eta armaz lotu gintuzten frantziar eta espainiar kateek, eta, horri buruz, Fernando katolikoaren (katolikoa, alafede!) inbasioa present eduki behar genuke V. mendeurren honetan.

Nafarroako biztanleak nafartzat eta ez bestetzat kontsideratuak zeuden XV. mendeko munduaren aitzinean. Horretaz, aski adierazgarria iruditzen zait 1531eko otsailaren 13an Xabierko Frantziskori Parisen gertatutakoa. Euskal saildua Pariseko Unibertsitatean itaunketa bat jasan beharrean gertatu zen eta, hango artxiboan, bere naziotasuna erregistratu behar zutelarik, ez zuten jarri frantsesa edo espainola zenik. "Cantaber" zela idatzi zuten, eta hitz horrek, orduko terminologia zientifikoaren arabera, Frantziskok euskalduntzat besterik ez zuela bere burua ematen digu aditzera. Bestalde, garai hartan, Frantzisko jaio zen latsuko herrixka ez zegokion Frantziari, eta ezta Xabierko gaztelua Espainiari ere. Biak ala biak, sasoi hartako legerian, Nafarroarenak, eta ez beste inorenak, ziren.

Pirinemendien magalean egonik, Nafarroako kokapen geografikoari moka du goxoa erizten zioten frantziar eta espainiar errege zurrupatzaileen grina makurrek. Halatan bada, asmahalako gezur guztiak asmatu zituen Fernando katolikoak Nafarroa indarrez bereganatzeko. Nafarroa Luis XII. arekin aliatu eta elkar hartzekotan zebiltzala azaldu zion Fernando erregeak, aitzakia gisa, Julio II. Aita Sainduari, eta aliantza hura ez Fernando eta ez Aita Sainduaren konkistatzaile-izpiritu maltzurrei komeni ez zitzaenez, eta, bestalde, esistitzen ez zen balizko aliantza hura Liga Sainduaren kontra omen zihoanez, azkenik, Bula bat eskatu zion Fernandok Aita Sainduari Nafarroa inbaditzeko. Exigit deituriko Bula eskuetan zuela esan (hori ere gezurra izan arren, Arturo Kanpionen ikerketa-lanek argitu zituztenez), eta, Albako Dukearen armadaz baliaturik, Nafarroa inbaditu eta ohostu egin zigun euskaldunoi.

1512.ean lutoz jantzi zen Nafarroa. Lutoz jantzi bai, baina baita ondra eta ohorez ere. Ordu fatidiko haietan senide nafarrek ez zioten gure arrazaren


deiarri iruzurrik egin, eta ez zuten gure lurra saldu. Areago, Nafarroa arrotzen eskuetara iragan zelarik ere, independentzia berreskuratu nahi izan zuten berriro nafarrek, geroxeago, 1522.ean hain justu, Amaiurko gazteluaren defentsa heroikoan erakutsi zuten. Huntza hormari atxikitzen zaion bezalaxe, halaxe atxiki zitzaizkion gazteluaren defentsari nafar agromondarrak, Mirandako kontearen tropa gazteluaren eta haien alde lerratu ziren traidore beaumontarren kontra su eta gar burrukatuz. XV-XVI. mendeetako une historiko gogoangarri eta laudagarri haiek ongi kitatzen dute nafarrek 1936.ean jokatu, eta euskaldunok lotsaz bete gintuen pasadizo ilun haren zorra.

Aipaturikoak barne-muinetan ditugula, zer gogo, grina edo desio izan deza-ke batek Colon eta Amerikako Aurkikundearen saltsa-maltsak ospatzeko? Gaurko Ameriketako indiarren bizi-ezina ikusi nahiezta, edota haien protestazko oihuak entzun nahiezta, espainiar ofizialisten eskutik joan behar al dugu ba Aurkikunde famatzera? Fernando katoliko hura al da goraiatzekoa, hots, Juana "La Beltraneja"ri tro- noa ohostu zion Fernando lapur hura, judu eta arabiarrek Penintsulatik jaurti- ki, eta haiekin batera beren kultura it- zela botaerazi zuen Fernando ezjakin hura, Inkisizio beldurgarria sortu zuen Fernando krudel hura, eta gezurrez eta armaz Nafarroa inbaditu zuen Fernan- do anker hura handietsi behar al dugu V. mendeurrenean?

Buka dezadan. Sevillako berealdiko punpezia eta arrandikieriak informazio historikoa barik, desinformazioa dakar- kioke euskaldun bati baino gehiagori. Hargatik, Sevillara gabe Nafarroara jo- an beharko luke historiarekiko gure ja- kin minak, Hispalisen ez baitu euskal gogoak aurkituko gure ama Nafarroak pairatu zituen laido eta traizio haren V. mendeurrena oroitarazten digun deu- sik.

HISTORIA HURBILA ZUMALAKARREGI MUSEOKO ZUZENDARIAREN ESKUTIK

Mikel Alberdi: “Kontzeptu historiko gutxi ditugu argi”



Mikel Alberdi irundarra dugu Ormaiztegiko Zumalakarregi Museoaren zuzendari, ireki zenez gero 89.ean. Historia garaikidea ikasi zuen Bartzelonan eta beste ikasketa eta artxibategi-lan batzu eginga da. Ezagun zaio, ederki asko menderatzen ditu Historia-gaiak.

Zumalakarregi Museoaren eginkizuna bi arlotan banatzen du Alberdik. “Bata da gai espezialdua eta hor sartuko nituzke bai artxiboa, liburutegi espezialdua, gordetzen ari garen informazioa (beste artxiboei buruzko ikerketak), bai beka (2.a) eta baita gure publikazioa (argitaratze 2.a). Bestalde, zabalkunde lan orokorra. Ez bakarrik Karlismo- mailan, baizik eta E.H.-ko XIX mendea. Hor sartu litezke prestatu ditugun eskolaurrentzako 3 ibilbide desberdin) eta Ormaiztegitik Zegamaraino txango bat egiteko proposamena, jende heldu, bisitari arruntentzat. “Maleta pedagogikoa”, “Jazkien baula” aurten aterea eta gero Museora dihoanari zuzendutako atentzioa. Hor bi atal: historigile alorreko ikasleena eta beste jendea irekia orokorrean”.

Urriaren bukaeretik aurrera, hilabetez, “Gipuzkoa bi Gerrate Karliten artean” erakusketa dute. “Probintzia guztiko industrializazioaren hastapenak jorratzen ditugu. Inprimategia, Tolosako papelerak, burnibidea... Gure planteamendua da bi gerren arteko gertaerak isladatzea. 1840- 72ean jarri ditugu mugak. Nabarmena da mugen auzia: 1841.ean, 1. Karlistaden ondoren, Espainiako muga Ebrotik Irunera eramaten da. Horrek erabat aldatuko du marko politiko- ekonomikoa. 2 urte lehenago pakea lortzen da Esparterok Foruak mantenduko direla dioelako, baina muga-aldaketak ematen die lehen astindua Foruei. Gertaera horrek sortzen du industriaren hasiera hemen. Frantzia eta Europako pro-

duktuak aisa sartzen ziren lehen; behar batzu zituen Estatuko merkatuandeko sartu ginen: Tolosaldeko papertegiak Espainian behar zen paperaren %80a sortzera iritsi ziren 10 urteetan. Hor aldaketa asko sortzen dira...”.

GALDERA.- Geure Historia oso ezezaguna zaigu.

ERANTZUNA.- Maila handi batean historiari buruz ezagutzen duguna oso motza da. Oso kontzeptu gutxi ditugu argi. Nolabait ere, Museoko bai erakusketa tenporala eta bai iraunkorra, oso ikuspegi pedagogikotik eginak daude, sinpleki. Agian, gure prolemarik handiena da testu asko dugula eta zaila egiten zaigula sinplifikatzea, baina saiatzeko gara. Gure lana da historia zati hori argitzea. Nabardura asko daude Historia horretan eta gaiean espezialistek esan dezakete hori ez dela horrela. “Hau txuria da eta hau beltza” esatea oso zaila da. Noski, oinarritzko ideia horiek behar dira lehenengo gero sakontzen joateko. Ikuspegi pedagogikotik planteaturik egon arren, Historiaren eta Museoaren ideia bat gorde dezake bisitariak. Kezkaren bat sortuko balitzaio, bitartekoak Ormaiztegin daude.

G.- Zenionez ekonomia eta politika daude Karlistaden azpian, beraz.

E.- Erabat. 1. Karlistada hasieran

(beti ere eztabaidagarria da), badaude historigileak diotenak Foruek ez zutela hainbeste eraginik. Egia da Karlistak altxa zirenean ez zutela Foruez hitzegin. Gerora ikusi zuten jendeak foruak defendatzen zituztela eta hor euskarri bat zutela. Horregatik sortu zen Muñagorriren 3. bidea, “Foruak eta Pakea” lemapean; ez karlistekin ez liberekin ez zegoen armada bat sortu zuen honek, pakea lortzearen foruak defendatuz. Ez zuen arrakastarik izan. 1. Karlistadan foruak eutsiko zirela esan zen, Konstituzioaren kalte ez ziren bitartean, formula anbigüo: ahalegindu ziren foruen kontra joateko.

Argi dago pakea-edo lortu zenean “Bergarako Besarkada”n, karlistak nekakuta zeudela 7 urteko gerra ondoren, ez zeukatela aukera handirik 1. Karlistada argi irabazteko, boterera iristeko. Baina garbi zegoen liberekin ere ezin zutela menperatu. Hortik iritsi ziren negoziatziora. Mahai gainean zer jarri zuten karlistek? Militar karlistak armada liberekin sartzea beren graduari eutsiz eta bestalde, foruak mantentzea. Horrela sinatu zen pakea. Zenbaitzu ez zeuden ados, ez zuten onartu eta mendira edo Frantzira jo zuten. Bergarako hitz bat bete zen, bestea ez, Foruak deusezten saiatu ziren, mugak aldatu, e.a. Militarrek bere lanpostuan mantentzeak ekarri zuen

ia graduko militar gehiago egotea soldaduak baino (karlistak gehi liberalak). 2. gerrate- ondorenean euskaldunak espainiar soldaduskara joan beharko dute gainera. Nolabait, "foruen onurak" ere defendatzen zituzten liberalek, zerga esentzioak, beraien onurarako zena. Hemengo industria garapenerako muga aldaketa ona zitzaien eta donostiar merkatariei ere interesatzen zitzaien. Hiriburua liberalagoa zen eta probintzia karlistagoa.

G.- Badago esaterik progresistak zirenik liberalak eta atzerakoiak karlistak?

E.- Progresoaren kontzeptua ez zegoen finkatua. Herria esaten dugun horrek zioenez, izan ziren garai hobekak eta okerragora zihoazten. Beraien kalterako zen progresoa. Azken finean, liberalismoak saltzen ziena zer zen?: Burgesia batek dirua egitea posibilitatzen zituen medioak. Ez jende xehearen medioak gehitzea. Beren filosofia zuten eta hemengo nekazari bati esatea etorriko dela askatasuna, e.a. baina zergak dirutan esijitzea, oso gogorra zen. Uste dut argi dagoela herria karlismoaren atzetik joan zela. Buruzagiak atzerakoiak ziren: botere absolutoa erregearentzat, e.a. Karlista herritarra foruen aldekoa zen guztia- ren gainetik. Kontzeptuok ulertzen zailak dira oraingokoentzat eta zailagoak ordukoentzat.

Liberalak oso denbora gutxian egonak ziren boterean. Frantsesada garaian eta "Hirurtekoan". Hor aldaketak egon ziren: produktuekin pagatzetik, zergak dirutan ordaintzera, e.a. Elizarentzat berriz oso txarra zen liberalismoa, erlijioaren kontrakoa: elizaren ondasunak hartu eta saltzea, Desamortizazioan. Alde hortatik, apai-

"Nabardura ugari ditu XIX mendeko Historiak"

zen sermoiak izugarri indar zuten probintzian, hiriburuko liberal eskas batzuen periodikuen aldean. Nabardura ugari daude historia puska horretan.

Bestalde, nahiz jabetza propiorik ez izan, herritarrek lur komunalak erabiltzen zituzten. Liberalismoak horien pribatizazioa zekarren. Udalek zorak zituzten eta baimena zutenek, amankomunalak saltzen hasten dira. Sinplekeria da esatea karlistak atzerakoi eta liberalak aurrerakoi zirela. Jendeak ulertzen dituen terminoak halakoa dira: muga aldaketak prezioen garestitzea dakarrela. Espainiako merkaturia ez zegoen erabat martxan eta orduan askoz errazagoa zen Baionatik garia ekartzea Burgostik baino. Maila horretan liberalismoa ez zen aurrerakoia. Karlista herritarrak ere ez ziren atzerakoiak izango beti eta denetatik egongo zen, liberal herritar librepsatzailak ere izango ziren.

Kezkagarria dena zera da: zergatik joaten ziren hainbeste euskaldun mendira, gudara?

G.- Bi hitzetan defini ezazu Zumalakarregi.

E.- Militar eta antolatzaile bezala, bere garaiko punta- puntako pertsonaia. Garaiz hil zelako mito bihurtu zena, hitz gutxitan esateko. Ideologia mota guztietako jendek bereganatu nahi izan du edo gutxienez errespetatu bere figura.

G.- 3. urteurrena bete duen Museoaren balantze bat egiguzu.

E.- Alde batetik, eskolaurren ikasurteko bixitak-eta bere eginkizuna bete dutela uste dut. Nabarmen zabaltzen ari da. Kontentu ateratzen dira erakusketara etorritakoak. Bestalde, uste dut poliki-poliki ari garela gure izena ezagutarazten, publikazio bidez, e.a. Uste dut lortuko dugula geroz eta jende gehiago erakartzea. Erronka bat dugu jende arrunta ekarrazteko. Bixitari partikularra honaratztea da gure lana. Eskolaur, taldeak, euskaltegiak, alde horretatik gehiago ere ez dugu lortuko, gure intentzioa ez bait da kuantitatiboki zabaltzea, baizik eta hemendik pasatzen direnak edonola ez ditezela pasa.

Gai guztion inguruan ikerketa asko egin dela diosku Mikel Alberdik, baina asko geratzen da egiteko oraindik. Esaterako, "orain artxibo pribatu batzutako dokumentazioa lortu diegu zenbait ikertzaileei. Artxibo publikoak irekiak daude, pribatuetan da sartzen zailagoa".

Museokoan lanen artean ez dago abazterik "Azterketa Historikoak" argitalpen saila, ondo dokumentaturiko lanak. Aurten gainera, "Gerrila Gipuzkoan 1. Karlistadan" beka irabazi zuen lana eta beste zenbait (historigile berritzaileenak) argitaratu behar dituzte. Ormaiztegiko Museoa, Gipuzkoa eta Euskal Herrira begira dago. Gertu dauka interesik lukeenak. Museo hau, gauza zabarkitu eta serioa ez baino alderantzizkoa da, koloretsua, bitxikeriaz josia eta maila guztiko jendearentzat zabalik dago Ormaiztegin. Ezagun dezagun Goierriko Museo bakarra.

Jon Arano



ANZIZAR, S. A.

Beasain-Zumarraga 46 Km.
Telefonoak (943) 88 17 00 - 88 17 00
FAX. (943) 88 48 11

111 p.k.
20200 BEASAIN

**Automobil mekanika eta elektrizitatea
Bosch-Jetronic Diesel eta Gasolina injezioa**

- Volvo-Alfa Romeo-Toyota autoen salmenta agentzia
- Kienzle takografoen salmenta eta konponketa
- Blaupunkt auto-irradiak
- Denetik automobil-kontuetan

BEASAINGO ALKATE (EAJ), CAF-EKO KARGUDUN, GOIERRITAR BAT GEHIAGO

Jose Luis Arriola:

“Orain arte lortu dena herriak lortu du”

Ondarrutarra da berez Jose Luis Arriola, bizkaiera-kutsuan antzematen zaio. Injinerutza Bilbon bukatua, CAF-era etorri zen orain 18 urte. 45 urte ditu, familiarik badu, ezagutzen du herria. GOIERRITARRAK oso hurbil aurkitu du beti Beasaingo alkatea eta uste dugunez, zurikeriarik gabe, bertako herritarrek zer esanik ez. Ideiak garbi erakutsi dizkigu.

Fabrika Haundian zenbait departamentu pasa ditu: ekonomian hasi, lanean ari zela enpresa administrazio masterra egin ESTE-n, informatika buru gero eta produktzioan dabil orain, mekanika tailerreko arduradun. Nahiko goian, ardurekin behinepein. Hiruzpalau urte daramatza horretan eta berritze galantak egin dira CAF-en, inbertsio berri eta zuzendaritza aldaketan aroan.

Ikasle garaian delegatua izan zen eta betidanitik datorkio gizarte-kezken harra. Alderdiarengandik hurbil zegoela, EA-EAJ puskaketa garaian eman zuen pausua Arriolak bertara sartzeko. Berehala ziren lehen udal-hauteskundeak eta zinegotzi atera zen. Hazienda Batzordean lan egin zuen Iñaki Erguinekin estuki. “Pozoina” barruan dagoeneko, beste hiruzpalau batzordeetan sartu zen. Lau urteren buruan Alderdiak zerrendaburu aurkeztu zuen. Alde batetik gustora, baina lan finkoa duenez, erresponzabilitate honek esfortzu ikaragarria eskatzen du. Lehena da Beasainen Alderdia, indarrak orekaturik ditu beste alderdiekin eta nahikoa zaila izan da Udalaren osaketa-konponketa.

GALDERA- Zer moduz konpontzen zarete alderdietakook?


ERANTZUNA- Legealdi honetan gauza bereziak egon dira: Diputazioko konponketa, Donostiako alkatetza,... Horrek erlazioak kutsatzea ekarri du. Kosta zaigu, hasieran akordioetara ez ginen iristen, sozialistekin gobernua osatuz (4-3) hasi ginen. Halako Gobernu batekin aurrera egitea bazegoen, baina ez nuen uste ona zenik. Ardurak banatzea erabaki genuen eta Gobernu irekita utzi genien besteei: EUE eta EA ere sartu ziren. Azkenean, akordio formalik gabe, baino HB udalean lan egiteko prest zegoela eta alde nabarmenik ez zegoela ikusirik, nahiz besteei hain ondo ez ikusi, sartu zen eta hala gaude bost alderdiak Gobernuan. Esfortzu handi bat egin zen 4 urterako plan bat egiteko. Urterrian hasita jardun ginen hizketan, alderdi bakoitzak bere ideiak jarri eta gastuak kuantifikatu 92ko aurrekontuan eta idea horren ildotik joango litzateke lau urterarako gastua. Inbertsioetan akordio batera iritsi eta negoziaketak egon ziren. Akordio nahiko zabala, ez zen sinatu publikoki baina badago halako kontsentsu bat 4 urterako lehentasunen inguruan. Niretzat oso esperientzi on, ze HBk Beasainen aurrekontuak onartzea... oso atzera joan behar ginateke. Hala jarraitzeko asmoak ditugu. Horrekin orain uste dut erlazioak hobeto direla. Horrek ez du esan nahi gorabeherarik egongo ez denik, bakoitza-

ren eskubidea da beren gestioa saltzea, e.a... Beasainen lan polita egiten ari garela uste dut, bakoitzari bere komisiolan nahiko autonomia ematen diot, koordinaketa bat eramaten dut, jendeak lan egiten du bere alorrean. Gaineraz, aurrekontuetarako uste baino diru gehiago etorri da Diputaziotik 20 milioi gehiago, oso ondo etorri da.

G.- Galdera abstraktua: nola dakusazu Beasain (Goierrin)?

E.- Beasainek dinamika interesantea du. Industria-alorrean arazoak dauzka. Hau bailadarentzako ere baliagarria da. Goierrin herri indartsuena edo espektatiba gehien dituen da gurea. Nola gauden? Eskerrak CAF momentuz nahiko polito dabilenik. Badakizu Indar-ek arazoak dituela (errekonbertsioan sartuta dabil, arazo inportantea da dituen langileekin, baina asmoak badaude aurrera atera dadin CAF-ekin e.a.), Estanda ere hor dabil erregulazioekin... CAF-ek 400 eta piku ebentual dauzka, gazte asko lanean, beraz; Aris- train ere nahiko ondo...

Gero, Beasainek, eta Goierrin ere noski, beti euki du komunikazio-garapena nahiko lotuta. Hor momentu inportantean gaude: N-1ko obrak aurrera doaz, prebisiotan sartuta Beasain- Durango korredorea egi-



tea, laster hastekoak dira Anzizarren halako skalextri-gorapiloea egiten, Zumarraga eta Olaberriako barianteak... Horrek ekarriko digu Deba-Urola, Bizkaia eta Bilbo-ko potentzialetara hurbiltzea, oso inportantea. Etxegaraterekin zer? Hor errepideen plan orokorraren abantzea dago. Errebisioan Etxegarateren lehentasuna (97.ean egitekoa) atzeratu da; 2004.ean jartzen dute Etxegarateren desdoblamentua egitea. Guk ikusten dugu hori txarra dela guretzat. Jakinda aurreko legealdian beste plana onartu zenean Gipuzkoatik eskatu zen Maltzaga-Urbina autobia egiteko. Planean ez zen sartu eta gero sartu da. Ez dut uste konfrontaziorik dagoenik bion artean. Diruak mugaturik daudela diote. Bat egin behar dela. Guk biak egiteko eskatzen dugu. Ez dut uste Etxegarate desdoblatu gabe baztertuta geldituko ginatekeenik, gure komunikazioak onak direlako, baina trafikoa eta honen inguruko aberastasuna jeitsiko litzateke. Pastelaren ginda litzateke Etxegarate hobetzea. Orain, nik ez dut ikusten hor drama izugarria ere, inportantea bai, baina bere neurrian. Bestalde, Arriarango urtegiari ari dira eta hori bukatutakoan saneamendu-lanetarako asmoak daude. Diru asko beharko da etorkizuneari, Diputazio eta Jaurlaritzak egin beharko dituzte inbertsio handienak. Uste dut urte batzutan ikusiko dela beste bizitza kalitate bat.

G.- Goierriko lanpostuen %60a industrian dago eta sektore horrek doministiku egitean katarroa harrapatzen du bailadak. Zer egin?

E.- Zaila da, baina mentalidade aldaketa bat behar da. Jendearen helburua izan liteke funtzionario izatea. Eta hortik ez goaz inora, ez dakar aberastasunik. Mezua hortik dihoa, jendeak arriskatu eta enpresak sortu beharko litzuke, esperientzia berriak badaude hortik. Orain arte, hemen lortu dena horrela lortu da, herriak lortu

du, zeren multinazionalik ez da etorri zerrutik. Erraza da esatea, baina dinamika horretan jarraitu behar da. Prolema bat dago ordea: orain arte esparru batetik bideratu da lana; adibidez, CAF-en inguruan sortu dira tailer piloa. Estilo horretako lan-tegiak ere ez dute iraungo beti eta dibertsifikazio bat etorri behar da. Zaila da: produktua, teknologia, merkatua bilatu behar duzu... Goierriko Plan Estrategikoa horren haritik dator. Zer egin liteke bailadako industria eta beste sektore batzu dinamizatze-ko? Puntu garrantzitsu bat da CAF-ek duen erosteko ahalmena, 12.000 milioi dauzka horretarako. Eta hortik, noski, dena ezin da hemen egin, baina analizatu liteke zer egin eta lanpostuak sortu. Garbitzaile enpresa bat sortu liteke bailadan adibidez, ez da hain zaila. Halako zerbitzuak geroz eta gehiago eskatuko dituzte bertako enpresek, eta hemen ez badute aurkitzen kanpotik ekarriko dituzte. Nahiz eta bertako langileak hartu, irabaziak kanpora joaten dira. Halako inizatibak behar ditugu.

G.- Nola dakusazu Beasaingo kultur panorama?

E.- Kulturean, uste dut ez garela abangoardia bat E.H.-an. Asetu behar diren beharrak ditugu. Orain Beasainen ez dauka gu toki egoki bat edozelako kultura erakusteko. Esfortzu handi bat egiten ari gara, hasi gara Usurbe zinema botatzen. Ez baitzen oso arrazionala eta errentablea halako toki handia kalitatearekin mantentzea. Proiektua ia onartua dago: bi urtera bukatuko da zine-teatroa izango dena, eskenatokiarekin; orain baino eslerleku gutxiago izango duena, baina kalitatezkoa eta Diputazioko zirkuituetan sartzeko baldintzak beteko dituen. Inguru guztietan kezak dituen jendeak entsaitu ahal izango du. Kultur-azpiegitura aldetik bultzada handia emango du.

Kaleko jendeak bestelako usteak (ustelak-edo) baldin balitu ere, Jose Luisek dio euskararen alde oso aurrera dabilela Beasaingo Udala. 91.ean funtzionarioek euskara ikas dezaten plangintza onartu zen, "martxan dago, nahiko ondorio onekin, arazoekin ere sustituzioak direla eta; horrek esfortzu handiak eskatzen dizkigu politikoei, kostu handiak". Euskara dinamizatzailea ere kontratatu da, euskararen erabilpena bultzatzeko. "Batzordea HBren menpe dago eta adostasun handiarekin ari gara lanean..., Udal Euskaltegiak ere defizit polita du..."

"Urte batzutan ikusiko da beste bizitza-kalitate bat"

Hemendik aurrera, zertaz ez gara mintzatu?: Ikastolarekiko sentsibilitatea, harreman onak dituzte beronekin, zentru publiko gisa tratatzen dutela berrou, beren mozioa... Bestalde, GOIERRITARRA potentziaztearen aldekoa dugu Jose Luis Arriola, badu zer esanik honetan.

Gainontzean, sistema bezala dauka bera-ekin egon nahi duen hura hartzea. Istituzio bizitzat dauka Udaletxea. Ez du dis- gusturik edota enfrendamendurik izan, herriko jendea irekia dakusa, ez da hain erra- dikala planteamenduak egiteko orduan eta batzuek besteak onartzeko prestago daude. Izan dadila horrela urte askotan!

Jon Arano

ZAZPI TABERNA

Andra Mari, 5 • Tfnoa: 88 69 13 • **BEASAIN**


ATERPE TABERNA

kultur erakusketak
egiten dira

Tfnoa: 88 46 66

BEASAIN

Agirrezabala: “Guk ere badakigu segan egiten”



Sekulako ikusmina sortu zuen joandako abuztuaren 30ean Larraitzeko zelaian jokatu zen sega apustuak. Bertan Manuel Erasun eta Juan Mari Agirrezabalak neurtu zituzten

indarrak. Adituek diotenez, ustekabeen, jokoan ziren biru milioiak Goierrin bertan geratu ziren, lazkaotarraren garaipen garbiari esker.

Oraingoan ikusmin handia sortu bada ere, inguru hauetan zaletasun urria duen kirola dugu hau, Lazkao aldean segalari bat bazela gebientxoek jakin arren, nabiko ezezaguna dugu Juan Mari.

Datuak hotzak izaten diren arren, hauek dira bereak: duela 28 jaio zen Lazkao-ko Imaz Berri baserrian, ordundik hazi ere egin da eta gaur egun 1,78 metroko altuera du, 78 kilotako pisua eta minutuko 38 pulsazio, kirolari ona izateko baldintza guziak beraz. Hau dela medio, lau apostu jokatu ditu eta lauak irabazi. Lehenengo biak 1985.ean, bat Antonio Erasukin aurka, aurrea lau kilometro korrika eta ordubete osatu arte segan, bigarrena berriz, Bizkai-ko txapeladuna zen Kerman Egiluzeren aurka ordubeteko saioan. Hirugarrena 1987.ean Inaki Bengoetxearen aurka. Lau- garrena berriz, Abuztuaren 30ean irabazi berri duena.

GOIERRITARRA: Baina guk badakigu egunkarietan atera ez den apostu bat Txindokiko maldetan galdu zenuela.

AGIRREZABALA: Hori ere badakizue? Bueno ba, lagun arteko apostu bat izan zen, lankide batekin nituen berriketen ondorio. Apostua, lehenik bizikletaz Ordizia- tik, Gaintzatik bueltan, Larraitzeraino eta hemendik oinez Txindokira igotzea izan zen. Xabier Lasa, “Ramon” bezala ezagu-

nak bizikletaz lau minutuko aldea atera zidan eta gero zerbait kendu banion ere, beti aurretik eraman nuen. Egia esan bizikletaz oso ondo ibiltzen da Ramon eta aurtan inguru hauetako igoera guztiak irabazi ditu.

G: Zergaitik zenuen Erasunekin lehian aritzeko gogoa?

A: Orain dela lau-bost urte, sari batean beragandik 55 kilotara geratu nintzen eta orduan sartu zitzaidan berarekin probatzeko harra. Ondoren, Erasun sega utzi eta aizkorara pasatu zen, guk pentsatu genuen ez genuela beraren pare jartzeko aukerarik izango. Aurtan Aburuzak luzatu zion desafioa eta orduan gustora geratu ginen segan berriro hasten bazen aukera izango genuelako.

G: Erasun omen zen faborito...

A: Hori zioten, bi ordutan beti errez irabazi du, baina denbora hartu eta ondo

prestatu ezkerok guk ere badakigu segan egiten.

G: Nolako giroa izan zen apostu arrerkoa?

A: Ez genuen inolako tira-birarik izan, baina lur sailak banatu ondoren apostu egunerarte, bi partaideon lagunak egon dira gau eta egun zelaia zaintzen, guk ohiturarik ez izan arren. Beste apostu batzutan gertatu izan da burniak, iltzeak sartu dituztela zelaian eta badakizu...

G: Ordu t'erdian demostratu duzu, orain bi ordutan saiatzeko asmorik?

A: Jendearen ezpainetan hori dago baina bi orduko preparazio luzeagoa, denbora gehiago eskatzen du eta nahiko arazo dut lanarekin. Ordu t'erdiko saltoak beldur eman zidan, orain ikusten dut dominatzen dudala, behar bada hurrengo bi ordutara litzateke.

G: Txapelketan, Gipuzkoakoa behin irabazi arren ez duzu zorte handirik izan.

A: Lana dela eta preparazio eskasa eraman izan dut. Gainera, jendeak ez du behar hainbat ardura hartzen zelaia prestatzean, adibidez urte batean ordubete baino lehen zelairik gabe geratu nintzen. Horrelako akatsategaitik urtea bukatzen zaizu.

“Zaldibitar talde honi
esker, bestela ez
nintzateke batere
arituko”.

**G: Nola prestatzen zara, entrena-
mendu eta jan aldetik?**

A: "Txiki" Arrugaeta ordiziarak prestatzen nau, uda aldean segan egiten dut baina atletismoko entrenamenduarekin, pultsazioa zaindaz. Egun batean ordubete, beste batean ordu eta laurden, hurrengoan

"Sega-mundua oso mugatua dago"

ordu t'erdi eta azkenik serieak, gero hiru ordu-laurdenetara jeitsi eta berriro gora. Hori denbora eduki eta hortara bakarrik egon ezkerro ondo, baina lanean arituz ez dago deskantsatzeko denborarik eta nahiko problema. Negu aldean gimnasioa aste-an bi-hiru aldiz, pesak ere bai, gainontzerako hiru-lau egunetan korrika, serieak, erritmo aldaketak e.a. Aralar aldean ere asko ibiltzen naiz bai bizikletaz, bai oinez. Jan aldetik berriz, dieta berezirik ez dut egiten baina kaloriak zaindu eta elikagai ekilibratuak jaten ditut. Ez da garai bateko txuleta jan eta txuleta jate hori.

G: Zergaitik hasi zinen segan?

A: Lehenengo apustua, Zaldibin Altzok eta Repok jokaturakoa ikusi nuen 17-18

urterekin eta gustatu egin zitzaidan. Herri kirola beti izan dut gogoko, batez ere aizkora baina diru aldetik gehiago kostatzen da eta fisikoki txiki samarra naiz, beraz sega eskurago nuen.

G: Zer sasoietan dago sega mundua?

A: Azken aldian nahiko hila dago, txapelketari dagokionez batez ere. Bizpahiru urte hauetan jende berdina dabil, Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketak jokatu eta hor bukatzen da urtea. Apustueta propaganda gehiago egiten da, gehiago saiatzen gara eta jendeak gehiago entzuten du. Iteera garbirik ez dut ikusten, federazio aldetik indar gutxi dago eta diru arazoak nabariak dira.

G: Beti "gutaz" hitzegiten duzu, nor mugitzen da zure inguruan?

A: Arrazoa duzu, segan nik egiten dut bainan atzetik jende dexente daukat. Borondatez laguntzen didaten zaldibitar talde bat da. Jokuko egunean biltzaileak ere 12-13 lagun behar dira. Zaldibitar talde honi eskerrak, bestela ez nintzateke batere arituko.

G: Segatik bizitzeko posibilitaterik bai?

A: Inongo posibilitaterik ez dago, orain-ago apustuan eguraldi ona egin du eta dena bikain atera da, beraz, errentable atera da. Baina urte guztian bat bakarra eta ez da nahikoa. Txapelketa aldetik berriz orain-




dik gutxiago, ez dugu inongo laguntzarik, hauek ia guk antolatu behar izaten ditugu; federazio aldetik oso laguntza gutxi dago eta jende ikaragarri behar izaten da. Sarretan ateratako diru gehien zelaia alokairuan joaten da eta gainontzekoa kuadrilaren artean banatu beharra dago.

Sega oso mugatua dago, ezin da pilota-leku batean lehiatu, zelaia baldintza egokietakoa behar da eta eguraldi ona. Gertatzen dena da urtero uzten dudala eta urtero hasten naizela.

Ane Martin eta Mikel Albisu.

■ Bi Lerrotan



—Legorretak omenaldi bikaina eskaini zion Mikel Lasa herriko futbolariari abuztuaren bukaera aldera. Omenaldi honen arrazoa Bartzelonako olinpiadetan Lasak Espainiako Selektzioarekin batera lortu zuen urrezko dominan zetzan. Herriko seme kuttun izendatu zuen Mikel bertako Udalak.

—Beasaingo BKL-ek sei eskubalo eta saskibalo ekipo berri aurkeztu ditu denboraldi berrirako.

—Ordizia harrobi izaten jarraitzen du rugbyari dagokionez. Iñaki Otsoa, Asier Garmendia, Jose Mari Nuñez eta Santos Regil Euskal Selektzioan daude eta bada Espainiako Selektzioa

ziora deitua den rugbilaririk ere.

—Aurrendenboraldi eder bat egin ondoren, txapelketa ofizialean ez du zorterik izan Beasaingo futbol taldeak; Erregearen Kopako lehen txanpan kanporatu zuen Real Unionek.

—Amaia Andres izan da ezein Olinpiadetan parte hartu duen lehen atleta gipuzkoar emakumezkoa. 800 m.tako kanporaketan eskuhartu zuen.

—Umeen saileko Aitzkorri F.K. zegamarra txapeldun-orde atera zen Frantziako Ayen-en jokaturiko futbol "Fotieux" Nazioarteko Torneoan.

OPORRETARAKO ASTIRIK GABE BERTSOTAN

Lazkao-Txiki:

***“Ez dut egundaino
bertsolaria naizenik esan,
bertsotan ari naizela
baizik”***

Lazkaomendiko “Abelene” baserrian jaio zen euskaldun fin bezain abertzale sutsua den bertsolari baur izan du Goierri bailara osoak Euskal Herrian sekula izan duen enbajadorerik boberena. Nork ez dio berari ustekabeko ateraldirik entzun edo nori ez dio parre algararik egin arazi?

Bere txikitasuna onartzeko, bändi izateak ematen dion konfidantzaz, bonako hau bota du: “Ceutan egin nuen soldadutza eta 9 hilabete pasa ondoren etxerako permisoa izan nuen lehenengo aldiz. Ni ez naiz ezer asko, baino “cabo” izatera iritsi nintzen, (pentsa zer behar duen gradu hau hartzeko) eta etxean arropak utzi nituenean, hala esan zidan amak: “Zer dituk sorbaldeetako zinta bauek?”. “Ni, aurrean, puntan ibiltzen naizen boietakoa naiz ama”, erantzun Joxe Mielek. Eta amak, “Bai, bi galoienatik ez, bi ikusiko bahaute aurrean jarri bebarko haute”.

— Nolakoa da Lazkao Txiki? Nola ikusten duzu zure burua?

— Ispiluan... Norberak ez du sekula jakiten hori, zuk ez al duzu entzun Pedromari Otañoren bertso hura?: “Nahiz jaio izan herri txikian / nahiz jaio mendiko bordan, / munduko gizon azkarrena da, / dakiena bera nor dan”. Ingurukoek esan beharko dizute hori.

—Zeri diozu beldurra?

—Klase asko dira, zigorraren beldurra, norekin hutsegingo duzun, bizimodua nola aterako edo eramango ote duzun... Nik beti izan diet gauza hoiei beldurra, oso etsikoia izan naiz beti, gauzak nola gertatuko zaizkidanaren beldur. Beste beldur bat berriz, orain hemendik aurrera izango dudana.

—Bizitzan egin duzun eta egingabeko zeren damua duzu?

—Gauza on gehiago egin eza da damu dudana. Egindako zenbait juerga eta astakeriak ere ez nituzke egingo; lagun batek dioen bezala, bizitza erdia osasuna galtzen pasa dugu eta orain bilatu ezinik. Horrela ikusten da orain begiratuta. Baina orduan ez, orduan gustora ibili nintzen, hura izan ez balitz ez nintzan hainbeste ibiliko. Oso zama astuna da bertsolariak daramana: ingurukoek hurrengo eguna jai eta guk ez.

—Inoiz izan al duzu zalantzarik jendearen aurrean: “Hauek nirekin parrez, ala neri parrez ari dituk”.

—Ez, ez dut horrelako irudipenik

izan, seguru ibili naiz horretan. Bertsolari bati behin lagunek esan omen zioten ez ibiltzeko horrela, jende guztia parrez ari zitzaiola eta hala esan omen zien: “Bai, hoiek denek artean parre egiten zidatek neri, baina nik bakarrik egiten ziet parre hoiek denei”.

—Ez zara zurikeria zalea, umoretsu zaudenean bezala triste edo haserre zaudenean, beti zauden bezala azaldu zara.

—Bai, nik beti gauzak gorde gabe esango dizkiot edozeini, nahiz eta gero zital edo petraltzat hartuko nauen. Hala ere, ez nioke bertsolari bati kontseju hori emango, nik horrekin galdu gehiago egingo nuen eta bere esku egongo da hori, zer izakera duen hura egingo du.

—Zer erakutsi dizu plazetan hainbeste urte ibiltzeak?

—Lagunartean edo jende artean hitzegiten eta moldatzen erakutsi dit, naturalago izaten, baina ez dit aurrez nituen kezkak uxatzen erakutsi, lehen hainbeste pentsatu behar izaten dut zerbait egin aurretik



edo ondoren.

—Zeintzu dira bertsolari baten ezaugarriak?

—Aurreneko ofizio handia eta gogoia, neri gastatzen ari zaidana. Lotsa ere neurrian izan behar du, ez ausartegia eta ez edozeinek esandakoa egitera jartzen dena, bista izan dezala.

—Umirezko gaia ala sentibera?

—Sentibera nahiago dut, beti triste ezin ibili eta umoretsu azaldu naiz, baina bihotzean sentiberatasuna daukat nagusi.

—Gai baten aurrean, zer auke-ratuko zenuke: hiru baleko bertso ala bat markakoa eta bi erdi-purdiko?

—Bat gogoan hartzeko modukoa. Horrek arriskuan ibiltzea dakar eta nik saioen ondoren buelta asko ematen diot esandako eta esan gabe utzitakoari, orain gainera lehen baino gehiago.

—Txikia izateak zer ondorio izan du zuretzat bertsotarako?

—Bueno, besteek diotenari segi behar, baino esaten den bezala, negar ez egiteagatik parre egin.

—Zer da zuretzat jakinduria?

—Behin batean Einstein zientzilaria trenean omen zihoan, eta interbentoreak biletea eskatzean, patrika guztiak arakatu arren, ez zuen bile-

“Oso etsikoia izan naiz, gauzak nola gertatuko beldur”

terik aurkitzen; orduan interbentoreak esan zion: lasai, ezagutzen zaitut eta badakit beti biletearekin ibiltzen zarela. Handik denbora batera berriro interbentoreak ikusi Einstein nola ari zen lehengo biletea aurkitu nahiri eta uzteko esan, fidatzen zela berataz. Einsteinek honela erantzun: Ez, ez da zuregatik, orain nik behar dut biletea, nora nindoan ez bait dakit.

Neretzat, ez da inor jakintsu titulua duelako bakarrik. Edonon ondo moldatzeko gai izatea da jakinduria. Nik ez dut sekula sinistu jakintsu naizenik eta ez dut egundaino bertsolaria naizenik ere esan. Hori gal-

detzean, bertsotan aritzen naizela erantzun dut.

—Bertso eskolei buruz, zer us-te duzu?

—Ondo daude, lagungarri dira zaletasuna dutenentzat. Gustatzen zait egiten duten lana, zaila izango da gainera.

—Gaiak emanda ala librean?

—Zailagoa da gairik gabe. Gaia jartzen dizutenean badakizu nola ibili behar duzun, eta ez baduzu gairik dena zuk aurkitu behar duzu, herritarrekin hitzeginaz edo ahal duzun bezala. Gehiago egin behar litzateke orain librean.

—Lehengo bertsolaritzatik gaurkora zer alde ikusten duzu?

—Doinu berriak, bertso luzeagoak... baino ildo beretik dihoa, gauza bera da.

—Noiz arte bertsotan?

—Ez dakit, askotan pentsatzen dut gehiago ez dudala kantatuko, lehen ere bai. Ez dakit noiz utziko dudan edo bertsoak neu utziko nauen.

Iñaki Murua
Xabier Narbarte



Giro on eta jatorra

Tlf.: 88 20 23
Iturrioz Kalea, 11

BEASAIN

Bodegon
GOIERRI
JATETXEA

Kale Nagusia, 20 BEASAIN
Tel. 88 00 00

TROSKAETA
Taberna

• Bazkari eta afariak
• Mondeju eta ardikietan berezitasunak

Tel. 88 10 37 ATAUN

Ostatua

ZERAIN

Tfnoa: 80 17 99

Bitxikeria Aralarren: Katxiñe

Gaur egungo "Katxiñe" ezizenekoen ondorengoek badute kontatzeko moduko bitxikeriarik. Birraitonengandik eta are atzeragotik datorkie lanbidea, artzantza. Gaurko "Katxiñe", Jose Mari Irastorza, Zarautzko Pasaetxe baserriko Josefa Zuzalaikaren alarguna da. 65 urte ditu eta 48 urte daramatza artzai Aralarren. Bere semea, Inazio ere hor izaten da, Kontxi Lertxundi bere andrearekin Eluzeta izeneko bordan. Azkenok Zaldibian bizi dira.

Joxe Mari honen birraitona, berez zaldibitarra, Amezketako Iraitxiki baserrira ezkondu zen eta haren semea (aitona), berriz, Orioko Katxiñe baserrira (gaur egun erretegia izan behar du). Han hartu bide zuen "Katxiñe" ezizena, oso antigualeko ohitura dugun legez Gipuzkoan, liburuek diotenez. Oriotik Aralarra egin zuen artzantzara eta bere ardientzako larre lekuak Alotza, Ganbo-Txiki eta Arrubi(gaño) zituen.


"Lehen ez omen zioten esaten Katxiñe gure aitonari, baina Oriora joan



zenean, Katxiñe artzaia eta hemen ere Katxiñe. Ondorengoei ere bai, guri ere. Hala jarraitzen du kontu honek. Hor Arrubiko zuloan ardiekin zebilela, Katxiñe deitu omen zioten goitik eta harrezkero Katxiñe-zulo deritza mendi ori. Gure aitona etorri ezker, berekin batera mendiari jarritako izena, orain ere hala jarraitzen du harek. Holaxe dira gure kontuak", esaten di-

gu Irastorzak.

Leku horri Katxiñe deitzen hasi zaizkiote gainontzeko artzaiak eta horrela agertzen da mapetan ere, azkenik. Kasu honetan, bitxikeria gertatu da. Ohizkoena da etxeak edo lekuak izena ematea etxeokari eta hemen alderantzizkoa gertatu da, gizonaren izena eman zaio lekuari.



TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak,...

Tfnoa: 88 89 53 ARAMA



Jatetxea

HAIZERI

Gudarien Etorbidea - Tel. 883960
20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)



SEGURO TALDEA
ZURICH-VITA-HISPANIA

GURUTZ BARANDIARAN IRASTORZA

ESTEBAN LASA, 7-1^oC Tfnoa: 88 88 92
20200 Beasain (Gipuzkoa) Faxa: 88 88 92

ZALDIBIAKO JAIEEN EGITARAUA

Urriak 5, 6, 7, 9, 10 eta 11

—**Urriak 4etik aurrera** "Ikusmusika, mundu guztiko tresnak" erakusketa Kultur Etxean. 4, 5, 6 eta 7an 16-etatik aurrera Rokodromoa futbol-zelaian eskalatzaile-entzat.

—**Urriak 5, Sta. Fe bezpera:** Festen hasiera: 19etan, kalejira; futbito partidua: Matximentako Poilaskoak / Noiz Guantxe. 8etan, Mondeju-Lehiaketa (bi urtez behingoa), mondejua jateko aukera. 23etan, Tapia eta Leturia trikitilariak.

—**Urriak 6, Sta. Fe eguna:** 9,30etan Baserriz baserri herritarrek esnatzeko zalaparta ugari. 10etan, herriko txistularien kalejira. 11etan, Meza Nagusia. Ondoren, Alkate J.ak herritarrei eskeinitako aurrekua; Zeberio eta Mendizabal bertsolariak; herriko lztueta Dantza Taldearen saioa. 18etan, pilota partiduak. 23etan, aspaldiko partez, Egan taldea.

—**Urriak 7, Sta. Fe Bigarrena:** 10etan txistularien kalejira; Meza, jarraian. 12etan xexenak. 18,30etan herritarren arteko Herri-Kirol Pentlatona (txingak, harrijasotzea, asto-karrera,...). 19etan, Imuntzo eta Beloki trikitilariak. 23,30etan, afalondoren, Eleuterio eta Imuntzo berriro.

—**Urriak 9, eutsi berriro jaiari:** Goiz eta arratsalde tramankulu harrigarriak haurrentzako. 16etan, ikuskizuna futbol-zelaian. 17etan, herritarren arteko eskalada-kaporaketak pilotaleku itxian. Segidan, txistularien kalejira. 21,30etan, herritarren arteko pilota saioak. Ondoren Eskalada Txapelketaren finalak. 23etan, Akelarre musika taldea.

—**Urriak 10:** 11etan, Haurren arteko pilota partiduak: Lizarra / Zaldibia lehian. 16etan, Txirrindulari-lasterketa: Zaldibia-Renault-Zaldibia-Larraitz eta Gaintzako kruzetik Gaintza-Zaldibia. Ondoren: erlojuaren aurkako proba. 18,30etan, sari-banaketa. 21etan, Pilotaleku itxian, aforia eta "agarratuan" egiteko berbena aproposa. 23etan, Drindots musika taldea. 12etatik aurrera, mozorroto eta kalera!

—**Urriak 11, Kuadrilen Eguna:** 12etan, Oriako Txaragaren kalejira. 14etan, Herri-Bazkaria. 16,30etan jokuak. 17,30etan, basurdekume harrapaketa futbol-zelaian. Ondoren, futbito-partidua zezen kozkor batekin. 20etan, Play-Back lehiaketa. 23etatik aurrera, 4ak arte, Iparraldeko Gazteok musika taldea. 6etan, txokolate-jatea. 7etan, zezenak. Mondejuaren entierroa ondoren.



Ondo pasa
inguruotako
azkenaurreko festak:
ZALDIBIKOAK!

*Guk esan gabe ere
famatzen dituzte eta*





GAT 1025

TXINDOKI, S.A.

*%Saren deskontuarekin
goierritarrentzat*

Txindoki bidai berezia: Italia sakonera
Irteera: azaroak 15 Bartzelona-tik.
16ean: Bartzelona-Nimes-Niza.
17an: Niza-Pisa-Erroma.
18-19: Erroma.
20: Napoli-Capri-Ponpeia.
21: Orvieto-Asis-Siena-Florentzia.
22: Florentzia.
23: Florentzia-San Marino-Ravenna-Venezia.
24: Venezia.
25: Venezia-Verona-Garda eta

Como Lakuak.
26: Como-Lugano-Milan-San Remo edo Niza.
27: Niza-Avignon-Bartzelona.
28: Bartzelonatik etxera.

Gela bikoitzean, pertsonako..
80.650 pza.
Norbanako gela.....102.500 pza.
Luxuzko autopullmanean, 3 eta 4 izarretako hoteletan, ia pentsio osoan, gidariez lagundurik
Irteerak, Segura, Ordizia, Tolosa eta abarretatik.

Urdaneta 11, behea

Tel.: 887200

ORDIZIA

LEIAR

KRISTALDEGIA

Eraikin eta merkatalguneen
Kristal ezarretzea - Beirategiak - Orma-ispiluak



ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua, z/g. Tlf: 88 88 24

BILTEGIA: Beasaingo Industrialdea, Salvatore Auzoa. Tlf: 88 60 70

BEASAIN

ERAKUSKETA
SUKALDEKO TRESNAK

Alpe

Mariazte, 4

20200 BEASAIN

88 86 84

Urdaneta, 68

20240 ORDIZIA

LOINAZ Taberna — Jatetxea

BAZKARI ETA AFARIAK

K/ Nagusia, 27 — Tlf. 88 20 07 — BEASAIN



MUEBLES

Ordizia

HALTZARIAK

Tfnok: 88 23 50

88 23 54

88 11 92

88 53 50

46, Posta Kutxa
ORDIZIA

Masajista
Tituludunak

Minaz ez egon

OXIS

KIROMASAIA

Aurrez
dei
ordua
hartzeko

Goierrri kalea, 6 behea - Tel. 16 04 47 20240 ORDIZIA

IBAI - ONDO



**ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Tailer eta Erakusketa:

Antzizar Auzoa, z/g.

Telef. 88 05 43 BEASAIN



Suskribatu zaitez!

**GAUR EDO BIHARKO
KOLABORATZAILEEI:
GURE TELEFONOA**

88 96 12

*Irakurri
eta
zabalitza
Goierritarra*

Gipuzkoako Dantza Gogoangarriak

" (...)Erri leial oek guziak dituzte alkarren artean adiskidetasun mamiak. Batzuek, mendietan bakite edo unio egokideak dituztelako, eta besteak, beren itzkai (gai), onkarri (etekin) edo asunto interesatuetan anaiaturik (elkarturik) arkitzen diradelako.

Ain zuzenki, eta arreta aundiarekin gordakaitzen dituzte Gipuzkoatarrak beren errietako jostallu egunean, bakite eta anaiatasun maitati oek, nola legerik aurrengoan.

Jostallua ospatu edo zebratzen dan erriko alkate jaunak, zortzi egunez aurretik gaztigatuko (jakin arazi-ko) dio bere amameru edo alguazillarekin, auzoerriko alkate eranzukidatzen zaionari (dagokionari) ezen, igaro deriela pozaldiako egunean beraren etxera bazkaitera (bazkaltzera), gero arratsaldean, oitura dan bezala plaza agirikoan dantza beakurtsu bat egiteko.

Deitua dan alkate jauna, atsegin aundiarekin, eta ongi adreztaturik (apaindurik), joango da bere lagunaren etxera bazkaitera, eta baldin berak ez badaki dantzan, eramango du dakien bat bere eritik, gelditu ez ditezen plaza agirikoan lotsatan, ala bera, nola jostallua dan erriko alkatea.

(...)Oitura maitagarri txit oneski au, gaurko egunean ere Gipuzkoako erri leial askok zuzenkiro gordakaitzen dutena, beraren berri ez dakitenak sinistatu dezaten egiazkoa dana, izendatuko ditut erri banaka batzuek:

Billafrankan, Santa Ana arratsaldean, lendabiziko dantza egingo du Beasaingo alkateak eta bigarrena Isasondokoak

Beasañen, Loinaz domekaz, aurrengo egingo du Billafrankakoak eta bigarrena Lazkaukoak.

Lazkaun, San Prudenzio egunean, lenengoa Beasaingoak eta bigarrena Olaberrikoak.

Olaberrian, San Juan Txikiz, aurrenekoa Lazkaukoak eta bigarrena Idiazabalkoak.

Idiazabalen, San Blas egunean, lenengoa Segurakoak eta bigarrena Olaberrikoak.

Seguran, Amabirjiña abohtukoz, Idiazabalkoak.

Ataunen, San Martin egunean, Lazkaukoak.

Lazkaun, Karmen egunean, Ataungoak.

Zaldibian, Santa Fedez edo San Bruno egunean, zeña oi dan urriaren seian, Gainzakoak.

Gainzan, San Migel egunean, Zaldibiakoak; eta bigarrena Baliarraingoak.

Baliarrañen, Amabirjiña abohtukoz, Gainzakoak.

Abalzizketan, San Juan egunean, Amezketa-koak.

Amezketan, San Bartolome egunean, Abalzizketakoak.

Orendañen, Amabirjiña abohtukoz, Alegria-koak.

Alegerian, San Juanez, Orendaingoak lenengoa eta bigarrena Ikaztegieta-koak.

Ikaztegieta, San Lorenzo egunean, aurrenekoa Alegria-koak eta bigarrena Legorretakoak.

Legorretan, Asenzio egunean, lendabizikoa Isasondokoak eta bigarrena Ikaztegieta-koak.

Alzagan, San Migel egunean, Aramakoak.

Araman, San Martinez, Alzagakoak.



IZTUETA

Isasondon, Amabirjiña abohtukoz, aurrenekoa Billafrankakoak, bigarrena Legorretakoak.

Erri txiki guzietan gordakaitzen dituzte oraindikan ere beren aurreragokoetatik artu zituzten oitura gogoangarriak; baña aundietan, zeñetan bear lirakean obekiago irozotu, aspaldi urrunatu zituzten jaioterriko dantza oneskiak, eta autatu erbesteetakoak, beren iritzi-geiagokoak diradelako oek, aiek baño.

Zer gauza izan ditek egokiagorik eta onesbedagariagorik done godartiaren egunean auzoerriak, ikusi dezuten moduan, alkar menekiaturik ain benazki maitatzea baño? Eta zer gauza mingariagorik, bakite edo unio ain elkarkoiak (lotuak) eta itsatsiak puskaturik eta sakabanaturik ikustea baño? Uste det bada nik, biztanleen artean dan aurrengo gauza dala, bakitea eta anaiatasuna gordakaitzea, gure asaba maitagarriak erakutsi ziguten bezala".

*Juan Inazio Iztuetak
1824.ean idatzitakotik*

**MAKINERIA ERAKUSKETA
HORNIKUNTZA INDUSTRIAL ETA
EGUR BILTEGIA**

EGURRA, S.L.

Jose M. Iturrioz, z/g.
Telefona: 88 06 21
Fax. 88 06 21
20200 BEASAIN

C-N 1
Telefona: 88 29 44
OLABERRIA

HIGIEN SEC

Gurutz Ruiz de Azua

**LEHORREKO ETA BUSTIKO
GARBIKETA BAKTERIOLOGIKOA**

Urdaneta, 52 - Tel. 16 14 48 • **20240 ORDIZIA**

ARALAR

PAPERDENDA

- Bulegoko tresneria
- Fotokpiak
- Ikastolako Materialak
- Koadernaketak
- Idazteko makinak

J.M. Barandiaran Enparantza, Tel. 88 12 40 **20240 ORDIZIA**

MARRAK
IDOIA - KARMELE
ESTILISTAK

Jleapaindegia

Foru, 1 - Tfnoa: 88 89 34

20200 BEASAIN



Modaren azken
joerak

MARTIN

Ileapaindegia

Ordizia, 4 • Goen 1 • Tfnoa: 88 86 55 • 20240 ORDIZIA

OSASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierrri, 10 • Tfnoa: 88 61 14 • ORDIZIA



Kawasaki YAMAHA

SUZUKI HONDA

ZUREMOTO, C.B.

Poligono Hiribarren, Atze 1
20210 LAZKAO (Gipuzkoa)

Teléf. (943) 88 39 03



SOLOZABAL
AUTOESKOLA
PERMISO GUZTIAK!

- Motorra
- Autoa
- Kamioia

- Trailerra
- Autobusa
- Erremolkea

Etxezarreta 5 (Herri antzokia parean)
Tel.: 16 12 21 — ORDIZIA



auto-eskola **ORDIZIA**

LA UNION Y EL FENIX ASEGURAOAK

Padre Urdaneta, 10
Tfnoa: 88 72 76

ORDIZIA



Zure Argazki

Urdaneta 18 • Tel. 889325 • 20240 ORDIZIA



**TXALUPA
ERRETEGIA**

Arrain, marisko eta okelak parrilan

P-21 ZENTRU KOMERTZIALA Tfnoa: 88 84 07 ORDIZIA



BRICORDIZIA

- BRIKOLAJEA
- ENMARKAKETA
- Eta zure ideiak ...

Goierrri, 21

TEL. 160416

ORDIZIA

**Eraikuntzak
P. ARMENDARIZ**


Filipinas, 13
ORDIZIA

Tfnoa: 88 49 50

TXISTULARI, EUSKALTZALE, IRAKASLE, BIKOIZLE ETA AKTORE...

"Balentxi":

"Zerbitzuaren belaunaldikoak gara"



Ordiziako "Balenziaga" jostundendako semea dugu Ramon Balenziaga. 43 urte, beste goierritar batekin ez-kondurik bizi da Donostian eta bi alaba ditu. Goierriko euskal-munduko alor askotan artista garai jakin batean, Balentxi ezagutu izan duen guztiak (eta ez dira gutxi izango) esango dute zein sutsu den. Gar horrekintxe, parrezka-eta, erantzun ditu gure galderak.

Txistulari gisa nabiko bakarrik ibili zen Balentxi gaztetan. "Bergara zabarra-eta izan zirenetik, gero txistulari taldea sortu arte, "Laguntasuna" kook bete genuen butsunea, adinez tokatzen zitzaigun. Hori zen Ameriketara joandako batek, Mendizabalek, berez berriaren alde ekintza batzu egiteko utzitako diruen interesekin mantentzen zen "Laguntasuna" elkarte, "Errondaila" ren aurretikoa. Txistulariak sortzea erabaki eta 4 aritu ginen txistu ikasten, nik 9 urte nituenetik". Geroztik solfeoa irakatsi zien gero txistulariak eta burrena Banda izango zirenei. Katekesiarekin batera, orduko mogidan.

Gerora, Goierriko Eskolan egin zituen 12 urte, gebienbat eta bereziki euskarazko klaseak emanez. "Nolabait, euskara eskolan sartu behar zelakoan hasi ginen. 66-67 urteak ziren, orduan asuntza nabiko berria zen, inongo eskolan ez zen euskarazko klaserik ematen. Ikasgai berria bezala jarri genuen gainera eta orduan izan zen, beno!, ikasleen aldetik ere zenbait eta zenbait keja. 'Derrigor euskara ikastea? Baina zer da hau?'. Ikasgai bezala seriotasun pixka bat eman nahi zitzaion eta bala basi nintzen".

Ordiziako Gau-eskola, "Goierriko Euskal Eskola" basi aurretik zetorren, borondate onezko dozenerdi bat lagun juntatzen ziren, Joanito Lasa eta Xanti Mendizabal tartean, 40ren bat ikasle zituzten. "Pentsazazu orduan ez zela ez metodorik eta ez ezer. Gerora etorriko zen "Euskalduntzen" metodoa, entzutezkoa. Zegoena "Euskera, bire

laguna" zen. Ikastolako umeak eginiko marrazkiak jartzen genituen tabernetan euskara ikastera etortzeko esanez". Piskana- piskana dantzari taldea sortu zen, Ikastolako Juntan zegoen dagoeneko ...

Duela gutxi esaten zigun Iñaki Muruak Balentxi zirikatu zuela bura bertsotan basteko. "Ez nekien bori! 'Kulpatxoren' bat izango nuen agian. Eskolako San Joan Boskoko jaialdirako nola edo bala jendea sortu behar nuen. Nik ez dakit zer parte izango nuen, Muruari kosta egiten zitzaion eskenategira igotzea eta konpromezuan jarriko nuen pixka bat". Lanbide Eskolan Rafa Jimenezen zuzendaritza baino lehentxeagotik zebilen Balentxi. "Harekin batera zuzendari eta baita jerente zela. Gero gertatu zen ixkanbila bura eta utzi zuen eskola eta nik bor jarraitu nuen".

GALDERA.- 70. hamarkadan giro latza izango zen Ordizian eta Goierriin!

ERANTZUNA.- Hor salto handia egon zen. Nik uste dut nahiko klabe izan zela Burgosko Epaiaketa. Goierriin bereziki. Oso gogorra, latza izan zen. Horrek dexente piztu zuen euskal gogoa, abertzale giroa... Horrek ere erraztu egin zuen dena, jendea ere gehiago atrebitzen hasi zen maila horretan. Gero, praktikan, badakizu, betikoa, ez zen gehiegizko jenderik mogitzen; baina bai, uste dut 70.eko hamarkada definitiboa izan zela Goierriin, bai Eskolan eta bai bailadan.

G.- Garai izugarri saltsero haietan,

"Politikoa" ere izan zinen zu.

E.- Bai, bai. Orduan derrior. Beno, politikoa ez, nik ez dut neure burua behinere politikotzat jo. Gehiago izan da, nik uste, gu fededunak ginen eta fedeak esaten zuen praktikara eraman behar gintuela-eta. Orduan erlijioak eragina zuen eta hori zela eta "Herriaren zerbitzuan" edo nolabait konpromezu batzuetara. Guk J.O.C eta horrelako mogimenduak ezagutu ditugu: herriarekin, langileekin konprometitzea, hori oso sartua dugu gure belaunaldikook. Horrek eraginda sartu ginen 'roilo' horietan. Noski, ez ginen gaur egungo politikara dedikatzen diren horietakoak. Ez zen nire gustoko platera.

G.- Ordiziako "Amets-Bide" Elkartearen garaiak...

E.- Amets-Bidetik sortu zen dantzari taldea, JOC eta elizaren inguruko zera zen, gero OARGI bihurtuko zena. Amets-Bide oso erabilia genuen, beste tokirik ez genuen biltzeko. Hor izan ziren istorioak! han ibiltzen zen MCKoa, ETAKoa, bestekoa, ELAKoa... Bolada bat izan zen hitzaldiak antolatzen zirenekoa. Historiari buruz, langilegoari buruz, Marxismoa-eta... a ze ixkanbilak! Gertatzen da Goierri oso bildua zela eta edozein gauza gertatzen zela, segituan zabaltzen zen, bai prestigioa eta bai desprestigioa. Espainolista/abertzaleen artekoak ere egon ziren...

ETA (pm)koa izateagatik seguraski, 74.ean bi aldiz gartzeleratu zuten eta 75.ean 9

bilabetekoa. Franco bil zenean, Carabanchelelik kalera. Laister izango zen Segobiako ibesaldia. Goierriin urteak eman "eta pentsatu nuen, agian bazela garaia zerbait gehiago egiteko, nire burua kapaz ikusten bainuen. Eta orduntxe bemen Itzultzaile Eskola sortzeko zen. Apuntatu nintzen eta abenturatxo bat: Donostira etorri, ordurako ezkondu eta bi alabekin, kajaorosen euskarazko klase batzuk eman, gastuetarako lain eta bizitzeko justu.

Bikoizle eta aktore

"Segobiako Fuga" pelikulan hartuko zuen gero parte Balentxik eta hor emango zen ezagutzera Goierritik kanpo. "Ezagunagoa nintzen txistulari bezala, euskara-euskal mundu hortan. 79.ean Itzultzaile Eskolan nengoela iritsi zitzaidan abisua ETBrako bikoizketarako probak izan behar zutela. Nik doblajea zer zen ere ez nekien. Ikastaroa egin eta bikoizketako zuzendari proposatu ninduten. Martxan jartzen, praktikak antolatzen aritu ginen eta zuzendari beste ikastaro batean. Ikastaro horietan, Xabier Elorriaga irakaslea genuen eta honek esan zidan aktoretzarako balio nuela. Nik parre egin nion. Zuzendari bati aurkeztuko ninduela. Gaur egun badakit ze trazedentzia duen horrek, orduan ideiarik ere ez. Imanol Uribek esan zuen ondo ematen nuela pantailan. Nik ez nuen horren kontzientziarik. Ez zaik behin ere burutik pasa, harrapatzen hau zeharo...", dio Balentxik lotsa apur batekin, eta bere burua goratzetik urruti.

"Ez nuen gustokoa politikaren platera"

"Segobiako Ihesaldia" rekin hasi eta filma egiterakoan izugarri disfrutatu zuten denek ere. Ordiziako "Fatxeti" ere aktoreen artean zen. "Nik uste dut zenbaitzuzentzako terapia gisakoa ere izan zela, nolabait lehen bizi izandakoa berriro bizitzea, baina jakinda ostiko bat eman ateari eta hura ez zela gartzela. Gertaerak utzitako posoa desmitifikatu egiten zuela pelikulak, jolastzat hartu genuen. Soldaduska bezala, gartzelatik ateratakoak beste hizketa gairik ez du: gartzela". Balentxi fugatutako bat zen eta paper garrantzitsua bete zuen.

"Albaniako Konkista" ez zen izan jolas bat, "interpretazio- lan bat baizik, zeuk egin beharreko pertsonaia eta maila horretan sorpresa handia. Uste nuen eginda emango zitzaidala, baina aktore zahar batek esan bezala, 'egin zak heuk heure pertsonaia, inor ez duk arduratuko eta'. Beste pauso bat izan zen. "Akelarre"n ere egin zuen paper txiki bat eta gero erreskadan etorri dira urte batzutan ETBko lanak. "Albaniako..." arekin nekatuta bukatu zuen eta "dexente gelditu nuen gurdi hori. Nahiko mundu eroa da, ordurik gabekoa, estresantea, eta moztu egin nuen. Hurrena 40 eskas sketx etorri ziren, "Bai zera!" izenekoak

ETBrako. "Ikusentzuleari hizketa-gaiak proposatzea zuen helburu: drogak zirela, edo edozein gai. Polita izan zen denentzako; gainera ETBn plato batean egiten zen lehen dramatikoak zen.

Bikoizketa zuzendari izan da denbora puska batean Balentxi.

"Gizakia Helburu"n orain

Azkenaldian, "etapa horren amaierara ere iritsi nintzen. Nik hemen eman beharrekoa eman dudala uste dut, esatean beste pausu bat ematea izan zen. Pausoa izan zen giza-mailan. Lehenagoko lana gustatzen zitzaidan, baina giza mailan badaude beste behar batzuk, agian gehiago lotzen zaituena baina askoz gratifikanteagoak halaber. Uste dut zerbitzuaren belaunaldia garela. "Gizakia Helburu"ra karitateko damatxoaren konplejuarekin joaten zara. Hasten zara lanean han eta deskubritzen duzu mundu bat ikaragarri aberatsa eta kalean topatzen ez duzun giza-maila, kalitatez. Hor bada jende bat bere bizitza goitik behera berplanteatzen duena eta berreraikitzen duena. Hor, ez beraiek bakarrik, zeuk ere zeure burua kuestionatzen duzu". Ikaragarri gustora dago, boluntariotzatik lanera pasa dela.

Bere ametsak bete dituelakoan dago, ez dago penatuta aktore- eta horrelako lan mitifikatuak utziagatik. Bizitzaren aspektu berriak ezagutzen ari da orain Ramon.

Mikel Aramendi

UTOESKOL ARALAR

Urdaneta, 64. Tel. 881651. 20240.ORDIZIA (Gipuzkoa)

GENERALI Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20 -Tfnoa: 88 87 02
20200 BEASAIN



AUTO ESKOLA

TELEFONOAK:
Lazkao: 88 72 99
Beasain: 88 18 96
GIPUZKOA



MUJICA LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA

ATAUN

Don Frantzisko

Don Frantzisko duela 60ren bat urte hil zen. Handia zen. Behin errezuak egiten ari zen eta Koxka gurdiaekin zetorren. Apaizak:

—Zer iruditzen zaizu, Joxe Antonio? Santu egingo al naiz ni?

Koxkak erantzuten dio:

—Santuak zimur-zimur egoten dira. Zuk tripa handia daukazu santu egiteko. Aida!

Gaitzari aurretik kasu

Ataundar bat bizikletan joaten zen lanera. Goiz hartan elurra zen eta amari esan zion:

—Elurra da eta baja hartu behar dut.

Amak medikuari hots egiten dio. Gizona, ikuiluko lanak egin, talo pilo bat jan eta ohera sartzen da. Medikua etorri da, ikusi du eta esan dio:

—Hori, hori gizon! Gaitzari aurretik hartu behar zaio kasu.

Sugea eta hankamotza

Zapatari bat hankamotza zen. Egurrezko hanka zeukan. Behin bidean sugea ikusi zuen. Sugeak mihiztoa ateratzen zuen. Zapatariak egurrezko hanka eman eta esan ere egiten zion:

—Helduio horri!

GABIRIA

Sabino eta Andres

Andres medikuarengana joan zen. Bihotza gaizki zuen.

—Ez naiz harritzen —esaten zuen Andresek— honek erabili dituen komediekin. Bai-

na gero beste mediku batengana joan nintzen. Belaun bat gaizki neukan. Medikua esan zidan ardoarena zela. Ardoarena? —esan nion—, beste belaunak ere edukiko du, bada, honek hainbat urte!

Sabino eta Andres lagun handiak ziren. Baita tabernazaleak ere. Sabinok igandeetan, meza aurretik, taberna guztiak pasatzen zituen. Ordu erdi lehenago etorri eta beti egiten zuen hori. Sabino hil zen eta zerraldoa elizara zeramaten eta jendea atzetik.

—Arraioa! —esan zuen Andresek tabernako atetik—. Sabino ez dago ederki, zuzenean elizara joateko!

Gabiriar bati "Berreundios" esaten zioten. Behin

Berreundiosek fraile bat aurkitu zuen maleta handi batekin. Biak gurdian eraman zituen. Azkenean fraileak esan zion:

—Eskerrikasko. Berrehun indulgentzia irabazi dituzu.

—Zer prezio daukate horiek? —galdetu Berreundiosek.

—Hiru pezeta inguru.

—Eman orduan sei erreal, hor goiko tabernan litro erdi bat edateko.

LAZKAO

Mozkorren zientzia

Joan Migel mozkorturik zegoen. Basoerdi

edan eta hogerleko bat eman zion tabernadreari. Bueltak lau pezeta eta bost txakur ziren. Paperezko pezetak sartu zituen eta txakur haundi bat lurrera erori zen. Tabernadreak:

—Tira, Joan Migel! Ez makurtu hamar zentimorengatik.

Orduan Joan Migelek beste lau txakur ere beheara bota eta:

—Bi errealengatik bai.

TXITXARRILLO

Txitxarrillok ere edana maite zuen. Bada haren esaera famatu bat. Bete-bete eginda, esaten zuen:

—Etxera joan, nahiko lo egin, afaldu eta ohera.

AURRERAPENA

Hiru lazkaotar lantegi aurrean zeuden goizean. Goiz argia eta urdina zen. Erreakziozko abioi bat pasatu zen eta batek esan zuen:

—Joño! Abioia ketan. Eta bai goitik ere!

Bigarrenak:

—Zerekin ibiltzen dira horiek?

Eta hirugarrenak:

—Bai motel! Poxpoloekin sua emanda!

ZERTARAKO HANKA?

Agure bat ohean zegoen. Hanka moztu behar zioten gaixoari. Lagun bat etorri zen eta esan zion:

—Ai, ai! Hanka moztu behar!

Besteak, animatu nahiean:

—Lehen ere nahiko ibili haiz. Ohean egoteko ez duk hankarik behar.

ALBISU

KRISTALDEGIA

Industrialdea
Tfnoa: 88 71 58

ORDIZIA

TAPIZ ETA GAINETZADURA
TAILERRA

BIOK, C.B.



Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.
Tfnoak: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN



Zumalakarregi, 1
Tfnoa: 88 79 63
ORDIZIA

Buruazaleko
tratamenduetan
azken teknologia:

- Laser
- Kiromasaia
- Digitopuntura
- Bibraterapia,
- e.a.

GARAJE "LAZKAO"



Renault
ZERBITZU OFIZIALA

Salmenta eta jatorrizko errekanbioak
kotxe konponketa orokorrean

San Prudentzio Auzoa, z/g. Tfnoa: 88 24 42 LAZKAO

Ez eta ez!!!

*(Doinua eta neurria: Xabier Letek
kantatzen duen "Habanera")*

Estatu bakoitzak dauka
bere menpeko armada
gazte asko eramaten
dituztelako bertara.
Espainiak ere ez du
eskubide hori laga
armada 'bikaina' dauka
hortaz mintzatuko gara.
Ez da denetan izango
hoberena beharbada
baina euskaldun gazteak
hortxe doaz armetara
elkar hiltzen erakusten
animalien erara
hau nola onar liteke
justizirik baldin bada.

Handik atakea eta
hortik ere atakea.
horra joan beharra da
guztiontzako kaltea
eta piperpotoari
muin zikin bat ematea
ez da oso atsegina
beraien banderapea.
Euskal Herriak badauka
toki horretan partea
herri triste batentzako
nolako errematea
orain guztiz zuzena da
guztiok hau esatea
bide bakarra dugula
ez joan eta pakea.

Hainbeste gazte kaskamotz
joaten dira urtero
joan izanaz ederki
damutzen direnak gero.
Militarren bigoteak
zutituz jartzean bero
hobe da isilik egon
bihurtzen bait dira ero.
Nik pentsatzen dut munduan
justiziarik balego
armeriek ez lukete
izango hainbat bezero.
Xaguak ere zulotik

irteterik ez espero
katuari kandadua
jartzen lagundu ezkerro.

Intsumisio-bidea
orain ugaltzen ari da
jende asko jarri bait da
arazoari begira.
Euskaldun gazte guztiak
intsumisoak balira
ez lirake etorriko
gugana Euskal Herrira.
Baina urte batekoei
hurrengoak har segida
dena manipulatuaz
beti jira eta bira
pake pixka bat hementxe
behar genuke sikira
baina munduan militar
guztiak berdinak dira.

Mutil hutsez osaturik
hainbeste urtez egona
denbora asko pasa da
aspaldi hartatik hona.
Hau esanez hor dabilta
aitona eta amona:
"Soldadutzan egiten da
mutil koskorra gizona".
Idea berri bat bada
usain txarra dariona
emakumeak sartu nahi
militarren zoriona.
"Ez datoz batere gaizki
zazpi edo zortzi gona"
esan diezadatela
norentzat den hori ona.

Bazkaria izaten da
"guztiz ona" alajaina
txarra dela pentsatuta
ez gaitezela engaina.
Hasteko lehen platera
besteei hartuaz gaina:
patata lehor pare bat
eta ondoan bi baina,
lukainka-mutur gogorra

harria hainbat ez baina
kontserba erdiustelek
hondatzen dute mingaina,
mahaia bedeinkatzeko
kaboak "Viva España"
horrela edukitzen da
armada sendo bikaina.

Pakea sortu nahi baina
beti sua eta garra
aspaldi pasatu zuten
hoiek infernuko marra.
Garaia laster da eta
barnean sortu zait harra
sasitan itoko bait da
zelai oneko belarra.
Herri txiki batentzako
ez ote da zoritxarra
arrazoia edukita
azpian egon beharra.
Zertan izango ote da
gure Euskal Herri zaharra?
indarrak du arrazoia
ez arrazoiak indarra.

Hainbeste jendek batera
ezetza eman orduko
pare bat hartuz kartzelan
hortxe dituzte sartuko.
Guztion borondatea
haiek dute nozituko
baina egunen batean
denak dira bueltatuko.
Berdin Aitor, Iker, Mikel,
Iñaki edota Urko
guzti-guztiei beraien
txanda zaienez helduko
eskumuturrak jasota
egin dezaiegun uko
EZETZ diogun artean
ez gaituzte makurtuko

Aitor Sarriegi

*(1991ko Bizkaia-Arabako
Bertsolari Elkarteko txapelketan 1.
saria, 15-25 urtekoen mailan)*

Janaririk goxoenak ardorik hoberenarekin bustitzeko...

Urkiola erretegia

Beasain erdi-erdian dago kokatua, kale nagusiaren 7. zenbakiko txoko batean. Duela hiru urte, honetan hasi zirenetik, Jose Inazio Urkiola parrillarekin aritzen da lanean; sukaldean, Mari Karmen, bere emaztea eta jantokian Martin, anaia, dena familian geratzen da beraz.

Jantokia ez da oso handia, berrogeitamar lagunentzako lekua dago, txoko bat ere badu aparte lasaia goxoa jan nahi dutentzat. Hau eta beste hainbat detaileengatik giro goxoa eta lasaia da bertakoa. Asite egunetan batez ere laneko bazkariak ematen dituzte, eta astebukaeretan berriz, despedidak, kuadrilak, bikoteak eta denetik edukitzen dute. Jantokia honela beteta edukitzeko publizitaterik onena jendeak ahoz-ahoz eginikoa omen dute.

Janariari dagokionez "hemen misteriorik ez dago, sukaldea ez da oso elaboratua, garrantzitsuena lehengaia da, arraina garbitu, erre eta atera". Normalki sasoiko gaiekin lan egiten dute; orain adibidez, onttoa, txipiroi txikiak, kogotetxoak e.a. dauzkate. Piper



beteak urte guzian edukitzen dituzte, orain adibidez onttoekin beteta dituzte, bestela arraiarekin edo garaian garaikoarekin. Iparraldetik ekarritako "foie" ona daukate, jabugo xolomoa ere bai eta udan era guzietako entsaladak. Urte guzian errodabailoa, rape eta kogotea edukitzen dute, baita ere bixigua edo garaian dagoena, haragi aldetik berriz txuleta dituzte estimatuenak.

Postreetan, denak etxean eginikoak, mamia dagoenean mamia, arrozene, pudinak,... Kafe irlandarra

oso ona egiten dute, Irlanda bertatik ekarritako kopa berezi batzuetan. Bertan Whiskia, kafea eta esne-gaina nahastu gabe, hiru gurutetan ateratzen dute.

Ardoak, zer esanik ez, onenak dira eta hotzgailu berezi batetan ardo bakoitza tenperaturarik egokienean da gordea.

Norbaitek aurrekontu bat eskatu ezke-ro gauza bat jartzen dute garbi: ze ardo, ze puru eta ze kopa behar duten, hauek bait dira prezioa nauriz kanpo igotzen dutenak. Etxeko ardoa, patxaran bat eta

fariasa hartuta menua 4000pza inguruan omen daibil. Prezio horretan, beraiek hain ongi zaintzen duten janariaren kalitatea guztiz ziurtatua dago.

Urkiola erretegia larunbat eguerdietan eta igande osoz itxen dute. Hala eta guztiz ere posible da baitaio, jaunartze edo familiarreko bazkariaren baterako igandean hauentzat bakarrik irekitzea. Bertako telefono zenbakia 880319 da.

Mikel Albisu

IKASTAROAK

Euskal Kultur Departamentua



UNED
BERGARAKO IKASTETXE ELKARTUA

Informazioa:

UNED. Bergara
Tfnoa: 76 13 42-43

DIALEKTOLOGIA

Irakaslea:

XABIER PARDO

Noiz:

Ostegunetan, 7etatik 9,30etara
1992-xi-12 / 1993-V-27

Matrikula epea:

Urriaren 19tik Azaroaren 7ra

Matrikula tasak:

10.000 pza

BERGARAKO EUSKARA

Irakaslea:

JUAN MARTIN ELEXPURU

Noiz:

Asteazken-ostegun, 7etatik
9etara
1992-XI-11 / 1993-II-25

Matrikula epea:

Urriaren 19tik Azaroaren 7ra

Matrikula tasak:

8.000 pza

EUSKAL HIZKUNTZALARITZAREN INGURUKO IHARDUNALDIAK

MIREN AZKARATE Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea

"Hitz elkartuak euskarz"

EUSEBIO OSA Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea.

:"Euskararen hitzordena"

PATXI GOENAGA. Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea.

TXILLARDEGI: Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea
Euskal azentua eta Ortofonia.

Noiz:

1993ko Urtarrilaren 16tik Apirilaren 10era

Matrikula epea:

1992ko Azaroaren 16tik Abenduaren 19ra

Matrikula tasak:

15.000 pza

Jai-giroan elkarturik!

Egun hauetan,
alaitasuna, poza, jolasa, ilusioak...
gainezka dauzkagu.


Herriaren zati bat garenez
eta horrela sentitzen garelako,
Herriarengandik hurbil egon nahi
dugu.

Horregatik bada, egun hauetan
Jai-giroko Elkartasuna!

Euskadiko
Kutxa



CAJA LABORAL POPULAR
LAN KIDE AURREKIA



ARCO EUROPA
ESTRELLA DE ORO
A LA CALIDAD



Telefona: 88 55 00

ORDIZIA - BEASAIN